



ARGIA

ROSSANO ERCOLINI

ZERO ZABOR EUROPAKO LEHENDAKARIA

“EZ ERRE ETORKIZUNA”



LARRUN:
EZKER ABERTZALEA
BERPENTSATZEN

ENEKO SAGARDOY
AKTOREA (AUNDIYA)

**JEAN-MICHEL
COSCARAT,**
BAIGORRIKO
AUZAPEZA



ERRAUSKETARIK?

ASTEAZKENERO ARGIAN IKUSGAI

TXOMINISTAK



NAROA
MIKELARENA

JON ANDER
ALONSO

EDURNE
AZKARATE

EÑAUT
GANTXEGI

ENERITZ ARZALLUS · LANDER ARRETXEA · MIKEL FERNANDEZ · UNAI GAZTELUMENDI · PERU ISASI · BEÑAT ITURRIOZ · ANE LUSARRETA · KEPA MATXAIN · MIKEL ROMAN · LAIDA ZABALA



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu

IRITZIA

- 17 June Fernández
- 18 Irati Elorrieta
- 19 Aingeru Epaltza
Edu Zelaieta
- 20 Bixente Serrano Izko



Ate joka dugu Kanada eta Europaren arteko merkataritza hitzarmena, CETA.
Zer ondorio izan dezake gure bizitzetan? (ARGAZKIA: WOLFGANG KUMM/AFP)

- 40 BIZI BARATZEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
SANTIAGO LÓPEZ PETIT
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Rossano Ercolini: "Zero Zabor errepublika zabal bat da, behetik gorako mugimendua" / Pello Zubiria Kamino
- 22 | CETA: Oharkabea, hemen dugu TTIPen klona / Unai Brea
- 24 | Claude Vaillancourt: "Zerbitzuen pribatizazioari irekitzen dio bidea CETAK" / Jenofa Berhokoirigoin
- 27 | Lasarte-Oriaren berreuskalduntzea: Ederki izerdituta lortutako miraria / Onintza Irureta Azkune
- 30 | Jean-Michel Coscarat, Baigorriko auzapeza: "Euskara orain ez da politika afera" / Mikel Asurmendi
- 34 | Emakumeak diktadurapean: Genero krimenak auzitara / Itziar Ugarte Irizar
- 38 | Eneko Oroz Ormazabal: "Nire gorputza ez zentsuratzeak indartu egiten nau" / Mikel Garcia Idiakez
- 44 | Eneko Sagardoy: "Iruditeria berritzaia komunak konpontzea bezain beharrezkoa da" / Lander Arretxea Bereziartua

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BEREAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.

Erredakzioa: Ane Urkola, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iratitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.

Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Lurrarekiko menpekoak

Bi gurpilekoa alboan lagata, bi hanken gainean amaitu zuten gehienek Txirrinka, maiatzaren 20tik 22ra Hego Euskal Herrian barna ibili zen bizikleta martxa. Azpiegitura txikitzaileen aurkako mobilizazioa izan da Txirrinka. Gizarte eredu baten aurkakoa, hortaz. Lurrari zauriak eragiten milioika euro gastatzeari utzi eta "elkarren zaintza jarri beharko litzateke bizi erdiaren erdigunean", aldarrikatu zuten txirrinkalariek Angiozarren, AHTren obren muin-muinetik oso gertu. Abiadura moteleko bizimoduaren alde, "lurrarekiko menpekoak garela ahaztu gabe".

Argazkia: Ekaitz Zilarmendi



“Ez dut baztertzen etorkizuneko Errepublika katalanaren presidente izatea”

Artur Mas (TV3n).

argia.eus/multimedia



“Klima aldaketa, lan suntsitzailerik handiena”

Asbjørn Wahl sindikalista norvegiarra, klima aldaketaren erronkari modu egokian aurre egiteko sindikatuen rol garrantzitsuz aritu da.



Hertzetan #8

Joseba B. Lenoir eta Gakobeltzak, *Eguzkietara begietara* so disko berria aurkezten. Joseba Baleztena, Miren Narbaiza eta Ander Mujika.



ARITZ LOIOLA / ARGAZKI PRESS

Babes eta ekimen berriak batu dira herri galdeketetara

Argia
@argia

Gure Esku Dago egitasmoaren baitan, euskal estatuari buruzko galdeketa egingo dute Barrikan, Lemoizen, Urdulizen eta Sopelan. Hala iragarri du Uribe Kostako elkarte sustatzaileak. Eskualdeko herri gehiagok parte hartu nahi badute, ateak irekita dituztela gaineratu dute. 2017ko apirilaren 2an egingo dute herri galdeketa.

Sindikatuak, galdeketekin bat

Datorren ekainaren 5ean egingo dira lehenengo herri galdeketa, Azpeitia, Goierri, Debagoiena, Aramaio eta Ispasterren. Kontsulta horiekin bat egin dute ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK eta USO sindikatuetaiko ordezkariak:

“Elkarrizketan jardutea, eztabaidatzea, aurrez aurre jartzea, hausnartzea... eta azkenean jendeari galdetzea normalena delako. Galdetzea da ditugun aferei buruz erabakitze modurik onena, arazoak konpontzeko, beren elkarbizitza antolatze nahiz aurrera begirako erronkei heltzeko”. Galdetuak izatea eta kolektibo gisa erabakitzea “kohesiorako eta erantzukizunez jokatzeko ariketa ezin hobe da. Gure bizitzak gure esku hartzen baititugu”, adierazi dute.

Debagoienan, 9.139 sinadura

Bestalde, Erain Debagoiena elkarteak jakinarazi du galdeketa egiteko beharrezkoak ziren 6.500 sinadurak gainditu eta guztira 9.139 sinadura jaso direla.

“Debeku maila jasanezinetara iristen ari gara”

MERCÈ ALCOCER, CATALUNYA RÀDIOKO KAZETARIA

Mozal Legearen azken biktima da Alcocer. 601 euroko isuna jarri diote “autoritatea desobeditzeagatik”, eta isunaren aurkako helegitea jartzea erabaki du irrati kateak. Pasa den otsailaren 20an, Jordi Pujol auzia jarraitzen ari zela, “gehiegizko neurriak” hartu zituen poliziak, eta kazetariak ez zieten abokatu eta fiskalengana hurbiltzeko aukerarik utzi. Alboko kale batetik auzitegiko sarrerara joan zen Alcocer, eta orduan dokumentazioa eskatu zion poliziak. “Hedabideetako profesionalok gure lana aske egitea galarazten digu egoera honek. Gure lanari bakarrik ez, herritarrek informatzeko duten eskubideari ere eragiten dio”. **PUBLICO (2016-05-21)**



HAURREN SEXU ABUSUA MUNDUAN



UNICEF erakundeak zabalduko datuen arabera, urtean 150 milioi haurrek pairatzen dute sexu abusua munduan. Arazoa larriagoa da legeak huts egiten duen herrialdeetan edo arreta berezirik jartzen ez zaion tokietan.

HAURREN PORNOGRAFIA SAREAN

EDUKIAK:





20
milioi
urtean.




400
argazki
sareratzen dira
egunean.

223 milioi
haurrek pairatzen dute sexu abusua urtean



KENYAN
15.000
haur, turista eta
atzeritarrengatik



BANGLADESHEN
haur esplotatuen batez
besteko adina:
13 urte



FILIPINETAN
100.000
haur baino
gehiago urtean



Iturria: UNICEF (2012). Infografia: GARBINE UBEDA



ARABAKO ALEA

Nola kiskali fabrika bat eta ondoren langileak kaleratu

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Hondakin industrial arriskutsuak tratatzen dituen Araiako Sertego Interenvases enpresan sutea izan zen apirilaren 25ean. Pabilioiaren eta ekipamendua- ren erdia kiskali zuten garrek, ke beltza kilometro askotara ikusi ahal izan zen, eta inguruetan erretako plastikoaren usaina nabari zen.

Fabrikan, besteak beste, plastikozko eta metalezko ontzi handiak garbitu eta txikitzen dituzte. Sutea itzela izanagatik, informazio gutxi zabaldu da nola eragin ote zien bertan zeuden gai toxikoei eta inguruari. Agian egunotan Madril ondo- ko Seseñan ikusitakoarekin jabetu gara hobeto arrisku horretaz.

Gertaeraren ondoren zuzendaritzak 19 langiletik 13 kalean uzteko espedien- tea ireki zuen, "ezbeharrak derrigortuta". Eusko Jaurlaritzak esan du ez direla har- tu sutea eragozteko "prebentzio neurri egokiak" eta atzera bota du eskaria.

Baina badirudi enpresak kosta ahala kosta kaleratu nahi duela lantaldearen zati bat, LAB sindikatuak prentsa oha- rrean salatu baitu hala ere zazpi lagun despiditu dituztela produkzio arra- zoiak tarteko, "mugarik gabeko prepo- tentzia eta autoritarismo keinu batean".

Sertego Interenvases enpresako zuzen- daritzaren arduragabekeria bikoitza da: alde batetik, ez ditu segurtasun neurriak hartu eta utzi du enpresa kiskaltzen, he- rritar nahiz langileen osasuna arriskuan jarritz; eta bestetik, arriskuan jarri dituen langile horiek berak kalean utzi nahi ditu.

Beharginek greba hasi zuten maia- tzaren 10ean, kaleratze espedientearen berri jakin bezain pronto. Asparrengo Udalak ez-ohiko bilkuran elkartasuna adierazi die, eta era berean kezka azaldu du, herritarrei eta ingurumenari kalte egiten dion enpresa delako Araiakoa.

2006an ere salatua

Ez da lehen aldia Sertego Interenvasesi halako zerbaiteko egozten zaiona. 2006an izandako beste sute eta euri-jasa batzuen ondorioz ingurura kutsadura isuri zuela salatu zuen Ametzaga herriko batzar- rak. Eta aurtengo urtarilean bertan beste sute bat izan zela jakinarazi du LABek.

Sertego hondakin industrialak kudea- tzeko sorturiko konglomeratua da eta Ur- baser taldea du oinarri, ACSren konpainia, Florentino Pérez enpresaria buru duena. 2015ean konpainia honi eta beste batzuei isun historikoa ezarri zieten hondaki- nak kudeatzeko *kartel* bat osatzeagatik. Seseña izan edo Sertego izan, hondakin errearen kiratsa dario honi guztiari.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gastu militarra berbideratu



Juan Mari Arregi

Espainiako Estatuko gastu militarra %33 handitu da 2015ean, eta 12.852 milioi eurotara iritsi da, aurreko urteko 9.596 milioien aldean. Hau da, 3.256 milioi euro gehiago gas- tatu dira, Espainiako BPGren %1,3. Stockholmeko Ikerketa Zentroak egindako txostenak halaxe dio. Bar- tzelonako Delás Bakearen Ikerketa- rako Zentroak, berriz, aurrekontu militarren barruan sar litezkeen beste elementu batzuk gehitu diz- kio kopuru horri, eta ondorioztatu du egiazko datua 17.500 milioi euro dela. 2015ean munduko gastu mi- litarra %1 hazi zen, 1,7 bilioi dolar hain zuzen. Munduko rankingean AEB dago lehen postuan, 596.000 milioi dolar eta kopuru osoaren %36 baitagokio. Txinak jarraitzen dio, 215.000 milioi dolarrekin, gero Saudi Arabiak (82.700) eta Errusiak (66.400).

Arma-industria munduko kapita- lismoaren sostengatzaile da, eta gisa horretan burtsetan gorantz doa, ete- kin handiak baititu. Kapitalismo hori kudeatzen duten gobernuak, aldiz, ongizate estatua desegiten ari dira eta murrizketa gogorak inposatu dituzte politika sozialetan. Baina ez dute zalantzarik sektore militarreko kopuru oso handiak bideratzeko.

Herritarrek presio egin behar die- te gobernuari, gastu militar hori ber- bideratu eta ekonomia errealean in- bertitu dezaten enplegua sortzeko, edota politika sozialetan, pentsioe- tan, kulturaren eta hezkuntzan erabi- tzeko. Arlo militarreko zuzenduriko euro bakoitza atzerapauso bat da bake baldintzak eraikitze bidean. Bakea nahi badugu, bake politike- tan inbertitu beharko dugu. Eta bake horren zati handi bat da denok lana izatea, berdintasuna, justizia, elkar- tasuna eta migratzaileak onartzea, areago arrazoi politikoak edo ekono- mikoak tartean direnean.



OLALLA RODIL / SERMOS GALIZA

Galiziera normalizatzearen alde

SANTIAGO DE COMPOSTELA. Milaka lagun bildu dira maiatzaren 17an (Galiziako Letren Eguna) Santiago de Compostelan, Queremos Galego taldeak deitutako manifestazioan. Erakunde publikoek azken urteetan sustatutako hizkuntzaren atzerakada eta zehazki azken urteetan PPK Galiziako Gobernuan egindako hizkuntzaren aurkako politikak salatu dituzte mobilizazioaren karietara zabaldutako manifestuan. "Galizian, galegoz", "Galizia aske, herri boterea", "Galiziako ikasgeletan galiziera nahi dugu" oihuak izan dira nagusi, jai giroan egindako manifestazioan.

Dima, Ziortza-Bolibar eta Legorreta, UEMAn

Argia

@argia

Maiatzaren 28an ospatuko du UEMak Udalerrri Euskaldunen Eguna Leitza. UEMak adina urte bete ditu Udalerrri Euskaldunen Eguna, 25.

76 kide

28 goizean, UEMak batzar nagusia egingo du eta Dima, Ziortza-Bolibar eta Legorreta UEMara sartzeko egindako eskaerak onartuko dituzte. Hiru horiek gehituta, UEMak 76 kide izango ditu guztira.

Festa...

Jai giroa izango da herrian, udalerrri euskaldunek 25 urtez egindako ekarpena gogoratu nahi dute-lako antolatzaileek, eta egindako lana eta bidea aitortu eragileei. Ekitaldi herrikoia prestatu dute horretarako.

... eta aldarrikapena

"Euskaraz bizi nahi dugula" gogorarazi nahi da eta udalerrri euskaldunek babes berezia eta hizkuntza politika aurrerakoa merezi dutela aldarrikatuko da. Leitza eta inguruko hainbat eragilek hartuko dute parte.

ZERGAK



9.400

milioi euro gehiago izango genituzke Hego Euskal Herrian, zerga-presioa Europar Batasunaren batez bestekoa balitz, LABen arabera. Gai sozialetara kopuru hori bideratzen dute EAE eta Nafarroako gobernuek.

%66,4

Zergetan bildutako diruaren %66,4 langileek ordaintzen dute; %33,6 enpresek.



ERRUGBI INKLUSIBOAREN HIRIBURU

Gaztedi errugbi taldearen ekimenari esker, Arabako hiriburua Munduko Errugbi Inklusiboko txapelketaren egoitza izango da. 2017ko abuztuan egingo da txapelketa eta 600 jokalaririk inguru elkartzea aurreikusten dute.



KARTZELARIK EZ 8/2013 SUMARIOKO AUZIPETUENTZAT

Bederatzi euskal herritarrek, aldean arteko akordioa lortuta, espetxea saihestu dute. Ekineko kide izatea leporatzen zitzaienta, "dena da ETA" doktrinarekin, talde armatuko kide izatea.



IDOMENI KANPALEKUA HUSTEN

Aldizkari hau irakurtzen ari zarenerako, Grezia Idomeniko kanpalekua desegiten ariko da, gradualki egingo duela iragarri baitu berriki. Idomenin dauden 8.400 lagun inguru beste kanpaleku batzuetara bidaltzeko dituzte.

Publikoki plazaratu da ezker abertzalearen zatiketa



Xabier Letona

@xletona

ASKATASUNAREN BIDEAN sortu da eta honekin ofizialki gauzatu da egiazkoa zen ezker abertzalearen barruko zatiketa politikoa. Horrek erakusten du Euskal Herria ez dela beste herrialde batzuetatik oso desberdina, hainbatetan pentsatu eta aldarrikatu izan den kontrara. Irlandan ere eman zen prozesu hori, aski giro gordinagoan gainera, Sinn Féin eta IRAtik aldendu zirenek borroka armatuarekin jarraitu baitute.

Borroka armatua da euskal gizarte-ko alor mediatikoak begiratu izan duen puntu nagusietakoa. Zer gertatuko da? Askatasunaren Bideanek Bilbon egin-dako agerraldi publikoan argi utzi zuen ez dutela horretaz hitz egin; alabaina, iradokitzen da ez dela lehentasunen artean, aipatu zutelako ezker abertzaleak baduela nahiko masa kritiko beste era batera antolatzeko. Aurkezpenarako ateratako agirian, dena den, argi antzematen da haiek ez diotela inori esan-goz nola borrokatu behar den edo nola ez: “Euskal Estatu Sozialistaren bidean, Euskal Herria askatzeko borrokan, nork bere tokia har dezala, gogo eta indarren arabera”.

Legitimitate borroka garrantzitsua ematen ari da ezker abertzalearen baitan eta Bilbon ere talde esanguratsuak lagundu zuen aurkezpena, 50en bat preso eta errefuxiatu ohik. ETaren jarduera armatuaren amaiera ekarri zuen estrategia bideratu zutenen aurkako kritika oso gogorra egin du talde berriak. Ezker Abertzale ofiziala dei genezakeena –Sortu, LAB, Ernai– politikoki larrutzen du, funtsean traizioa leporatuz eta hauen izaera Bergarako Besarkada, Santonako errendizioa edo ETA pm, EIA eta Euskadiko Ezkerrarekin parekatuz.

Ezker abertzale ofizialak jadanik oso aspaldi erabiltzen ez duen Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren mi-



ARITZ LOIOLA / ARGAZKI PRESS

litantetzat jotzen dute euren burua eta “lotsagarritzat” hartzen dute Sorturen jarduera eta norabidea. Denbora mugarrira ere finkatu dute: traizioaren hasiera sinbolikoa 2009ko azaroan Altsasun legez kanpoko ezker abertzaleak “Mitchell Printzipioak” onartu zitueneko prentsaurreko jendetsua izan zen. Harrez gero, ezker abertzalean bi joera garatu direla iritzi diote, “alde batetik erreformista, oportunistak zein instituzionalista eta bestaldetik abertzale sozialista iraultzailea”. Lehena nagusitu da ezker abertzalearen erakundetzean, eta orain bigarrenak lehia politikorako atea ireki du.

Askatasunaren Bideanek plazaratzen dituen kritikak ez dira berriak eta hainbat moldetan gizarteratu dira azken urteetan. Horietako ezagunenak amnistia-aren inguruko diskurtsoan egituratu dira, batez ere Amnistia-aren aldeko eta Errepresioaren aurkako Mugimenduaren bidez. Iraultzaileen Bilguneak edo Ibil moduan ezagututakoa ere sortu zen 2013an eta ANV-EAE historikoaren ideiei helduz, Euskal Ekintza erakundea

2015eko abuztuan. Izaera anitzeko ekimenak dira aipatutakoak, baina Sorturen ibilbidea egurtu izan dutenak.

Era askotako kritika emaria jaso du Sortuk azken urteetan, bai bere baitatik bai herri mugimenduei loturako sektore zabaletatik ere. Zenbaki honekin batera argitaratu den LARRUNen ere –“Ezker abertzalea berpentsatzen”– irakurri daitezke horietako batzuk, hamai-ka gaztek egindako hausnarketetan. Abian prozesuarekin eztabaida bideratu nahi izan dute Sortu, LAB eta Ernaik, eta ikusteke dago honek zer emaitza eman-goz duen edo zein neurritan lortuko den krisi sakona bizi duen ezker abertzale ofizialaren berregituraketa.

Oraingoz ez dirudi korronte hauek ezker abertzale nagusiaren hegemonia gaintzeko adina indar dutenik, baina lehia ematen ari da esparru askotan eta disidentzia gorpuztu ahala, hauteskunde borroka ere ezin da baztertu. Ez da Askatasunaren Bideanen lehentasun esparrua, baina ate hori ere parez pare irekita geratu da. ■

Behiala, EAko kargudunak EA kendu zion
IRUÑEARI ...ERDĀLDUNAK ERĀKĀRRI NĀHIZ...
ERDĀLDUNIK ez zuen bildu, baina bai
EUSKĀLDUN INTELEKTUĀL ZENBAIT...

ETA ĀZKENĀREN
BURUĀN, UDALETXAK
MUTĀZIOĀ ONĀRTU:

IRUÑA

TXANTRA

ARROTXAPA

IRUNLARRA

DONAPA



CK

Rossano Ercolini, Zero Zabor Europako lehendakaria

«Zero Zabor errepublika zabal bat da, behetik gorako mugimendua: etorkizuna gurea da»

Goizean eskolan ari zen umeei Capannorin, eguerdian hegazkina hartu Pisan, Loian barrena gauerdian heldu, larunbatean Hernanin hitz egin errausketaren aurkako aktibistei, "zorionak zuri!" entzun (61 bete ditu) bazkaritan, igande goizez Zubieta eta Usurbil, bazkal ostean hegazkina eta astelehen goizean eskolan ariko da berriro.



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Hona hemen Barack Obamarekin hitz egi- teko aukera izan duen gizon bat.

2013ko apirilaren 18an gertatu zen, bai. Urte hartan Goldman Prize saria jaso genuenok izan genuen ohore hori: Irakeko Azam Alwash, Hegoafrikako Jonathan Dial, Indonesiako Aleta Baun, AEBetako Kim Wasserman eta Kolonbiako Nora Padillak, Bogotan hondakinak birziklatzen dituzten langileen liderrak.

Etxe Zurira joan aurretik Munduko Bankuan errezibitu gintuen erakunde hartan hondakinen kudeaketaren eta klimaren aldaketaren gaiak jorratzen dituen *task force* [zuzendaritza tekniko] osoak, eta hori seinale nabarmena da, errauskailuak finantzatzaren arituen erakundea interesatzen hasi delako Zero Zabor esperientziez ere, lanpostu ugartzeko daukaten garrantziagatik.

Harreman horiek guztiak Goldman Fundazioak ematen dituen sarietako bat irabazteagatik.

Bai. 2012ko urri amaieran deitu zidaten eskolara: "Hello, Mr. Ercolini? Hemen Goldman Fundazioa, San Franciscotik. 2013ko Ingurumen Saria irabazi duzu!". Urteak daramatzat lanean Lucca

(Toskana) inguruko Marlia herriko eskolan. Atsedenaldia bukatuta geografia-ko ikasgaia ematen harrapatu ninduen deiak, 5. mailako 27 haurren artean. Neska-mutikoak barrezka hasi ziren telefonoz ingelesez sentitu nindutenean, ea norekin aritu nintzen hizketan. San Franciscoko andre bat zela. "Eta zer nahi zuen?". "Esan dit Rifiuti Zeron [Zero Zabor] egindako lanagatik sari oso inportante bat eman didatela". "Zenbat diru?" "150.000 dolar!". Eta haiek: "Baina orain aberatsa zara!". Lanak izan nituen haur haiek konbentzitzen albistea sekretua zela eta nire konplize izan behar zutela hori isilik gordetzen...

Zer esan zenion Obamari?

Lau minututan, hasteko esan nuen lehen mailako eskolako maisu bat naizenez igual neska-mutikoek zorotzat hartuko nindutela Obamarekin Etxe Zurian egon nintzela esandakoan. Barre egin zuten denek. Ondoren esan nion Italian sinpatia handia geniola presidentearen emazte Michelleri Etxe Zuriaren ondoan baratztea egiten zuelako eta konposta ere bai. Gure kezka azaldu nion Washington hiriburutik gertu batzuek erraustegi bat proposatzen dutelako, eta gure itxaro-

pena dela amerikarren diru publikoak errausketaren ordezkopostatzera, birziklatzera eta Zero Zabor estrategietara bideratzea.

Rossano Ercolini

1955, Capannori (Italia)

"Maisua egunez, aktibista gauez" aldarrikatzen du bere buruaz, gaztetatik lehen mailako hezkuntzako errient dirauenak. Oraindik bizi du ama 96 urterekin. Ama bezala "zimela eta burugogorra" izaki, luzaro bizitzea espero du. Soiltasun handiko gizona, txoriak adina jaten du, baina ez dio uko egingo baso bat ardo oni. Maitatu du Urumeako sagardoa, "txotx!". Hondakinetan zentraturik bizimodu hobe baten bila izandako bizipenez osatu du liburua: *Non bruciamo il futuro* (Ez dezagun etorkizuna erre). Bigarrena ari da prestatzen, Zero Zabor hurrei azaldua. Jai eta aste maisu eta aktibista indarrez irauteko, goizero *Hatha Yoga* ordu erdiz, huts egin gabe.



AEBetako gizarte mugimenduetan asko daude haserre Obamarekin. Zero Waste mugimenduan, esaterako, Brenda Platt edo Neil Seldman bezalako pertsonalitate erreferentziazkoak, *Yes we can* hura sinetsi zutenak, oso etsita daude Obamarekin honen agenda multinazionalak gehiegi baldintzatu dutelako: baina kanpotik begiratuta uste dut ez dagoela konparaziorik Obamaren AEBen eta George W. Bushen interbenzionismo gerrazale eta multinazionalen interesel lotu haren artean.

Erraustegiaren kontrako zure borrokan hasiera kontu iezaguzu.

1995eko udazkena beroa izan zen gu-rean. Toskanako eskualdeak bi erraustegi berri eraiki nahi zituen Lucca probintzian, bata Capannori gure herrian eta bestea Pietrasantan. Horren aurrean *Non bruciamo il futuro* (Ez dezagun etorkizuna erre) elkarte antolatu genuen. Capannorik dituen 40 auzoetan egin genituen bilerak, herritarrek masan erantzun zuten, erraustegia egin nahi zuten Casa del Lupon mila lagun bildu ginen.

Ni eskolan modu nahiko bitxian hasi nintzen gaia lantzen. Goiz batez zaborrez betetako zaku beltza eramanez eta hasi nintzen hartatik ateratzen botilak eta bidriozko zerak, sagar eta platano hondarrak, Coca Cola eta kontserba latzak, plastikozko botilak, kaiera orriak, kartoia... Pilatan sailkatu ostean, galde-tu nien haurrei: "Zer ikusten dituzue pila hauetan, hondarrak ala zaborrak?". Eta haiek azkar: "Hondarrak!". Gero batek esan zuen aita paper fabrika ari dela lanean eta kontatua diola paper usatuekin berria nola egiten duten, besteak aita ikusi izan du fruitu kondarrekin ongarrira egiten... "Orduan, non da zaborra?" nik, eta haiek: "Ez da zaborrik!".

Hala ere, hortik erraustegi bat gelditze-ra...

Jauzi kualitatibo bat behar genuen, halako zientifikotasun zigilu bat zertifikatuko zuena gure arerioen eta batik bat iritzi publikoaren aurrean erraustegiak oso arriskutsuak direla. Horretan babesik gabe aurkitu ginen, isolaturik. Berdeek ere esaten zuten errauskailu zaharrek kutsatzen zutela dioxinaz, baina belaunaldi berrikoek energia sortzeaz gain ez dutela kutsatzen beste fabrika batek edo autoen trafikoak baino gehiago. Ni Alderdi Berdearekin aritua



ILFARO24.IT

Ercolini, Goldman saria eskuetan duela.
AEBetako presidente Barack Obama agurtzeko aukera izan zuen.

nintzen hasieratik, zinegotzi ere izan nintzen, baina errausketaren kontra egotetik alde egotera aldatu ziren, esaten genuen berdeak zirela dolarraren kolorea zeukatelako.

Garai hartan ez genuen aurkitzen inguruko unibertsitateko irakasle ospetsurik babestuko zuenik, datu gezurta ezinekin, errausketaren aurkako gure jarrera. Medicina Democraticako doktoreek lagundu ziguten, baina politenikoetako mundu akademikoak belau-naldi berriko errauskailuak sustatzen zituen. Eta errausketaren lobbyak ekin zion herritarrek konbentzitzeko kanpaina indartsuari.

Orduan, esan ohi duzunez, gertatu zen zuten *Big Bang* berezia.

AEBetatik ekarri nahi izan genuen Barry Commoner New Yorkeko CBSN Biologia Naturalaren Sistemen Zentroko zuzendari eta ekologismo modernoaren sor-

tzaileetakoa. Hura gaixorik zegoela eta, Paul Connet ekarri ahal izan genuen, St. Lawrence unibertsitatean Ingurumen Kimika irakasten zuena, dioxinak elikagaien katean transmititzeaz azterketa ezagunak plazaratua.

1996ko urtarrilaren 25erako antolatu genuen eztabaida, Luccan. Errausketa sustatzen ari zen arduradun nagusia, Del Lungo, etortzekoa zen baina... ez zen azaldu, Connet bakarrik utziz. Aretoa jendez beteta zegoen, inguruetakoa alkate eta zinegotziak, bestelako agintari eta funtzionarioak, kazetariak, herritar-rak... Amerikarrak kikildu ote zuen Del Lungo? Connetek, hitz egiteko txanda eman ziotenean, ireki zuen maletatxoa eta handik aterata panpinazko oilasko bat ipini zuen errausketaren aholkulariak hitz egin behar zuen lekuan, esanez: "*The yellow chicken!*" (Oilo bustia).

Paul Connet ezagutzen dugu Gipuzkoan ere, bai, komunikatzen maisua da.

Connetek azaldu zuen erruduna dioxina dela, erraustegi modernoetatik ere erasotzen duen *killerra*. Berriek zaharren dioxinen hamarrena isurtzen omen dute, baina bitartean deskubritu da dioxinak lehen uste zirena baino ehun aldiz arriskutsuagoak direla. Ez dira biodegradatzen, eta bitan egiten dute kalte: haizeak eta tenperaturak airez barreiatzen dituztenean, eta elikadura katean sartzen direnean. Emakumeak, gainera, gantzetan pilatzen den pozo hori kanporatzeko modu tragikoa dauka: haurdunaldian daraman umeari pasatzen dio, eta horrela ondorengo belaunaldiei. Gero daude metal astunak, kadmioa, merkurioa, beruna, artsenikoa, eta beste pozoiak...

Gutxi balitz, gezurra da errauskailuak "hondakinen zikloa ixten duela" dioten hori: ehun tona hondakin erretzeak 30 tona eskoria uzten ditu, horietatik %10 erraustasun arriskutsuak, zabortegi bereziak behar dituztenak. Horra zergatik. Errausketak gutxitzen ditu gaikako bilketa eta birziklatzea, eta multinazionalak hain maitea duten hiper-kontsumoa sustatzen.

Baina zuek Luccan irabazi egin zenuten.

Lortu genuen bai Capannoriko eta bai Pietrasantako proiektuak geldiaraztea, eta geroago 2008an Castelnuovo de Cagnanako erraustegi zaharra ere ixtea lortu zen.

Pietrasantakoa ez zenuten geldiarazi eraiki eta martxan jarri ostean?

Pietrasantak bazuen 1974an Falascaiaiko erraustegi zaharra. Herritarrek etengabe salatzen zuten hark beren osasunean sekulako kalteak eragiten zituela. Eta hura itxita arazoa konpontzera zihoazela zirudienean, 1997an agintariek erabaki zuten haren lekuan berria eraikitzea. Herritarroei esaten ziguten Europako sistema kontrolatuena zela, dioxina isurketak etengabe neurtzen ziztielako, eta abar.

Hondakinak erretzen hasi eta bi urtera Falascaiairen kudeaketa pasatu zen Veolia multinazional frantziarraren eskuetara eta laster gutun anonimo bat iritsi zen epaitegira, seguruenik boterea galdu zuen norbaiten mendekua izango zen: Falascaian emisioak kontrolatzeko sisteman software bat jarri zutela kutsaduraren neurketa faltsutzeko, datuak hamar aldiz gutxituz. Urte batzuk geroago Volkswagen autoen eskandaluaren antzera.

Tarte horretan, 2003an analiseiek erakutsi zuten erraustegiaren kutsadura zela legez onartua baino hamabi bider handiagoa. Eta gauez inguruko errekarara ur kutsatua isurtzen ere harrapatu genituen. Azkenean, estatuak 2010ean itxi zuen Pietrasantako labea. Gaur Lucca "Incinerator Free" lurraldea da.

Lorpen horiekin, ez da harritzekoa inguruetatik zuei laguntza eske hastea.

Lehenagotik, 1996ko *Big Bang* hartatik hasi zitzaizkigun deika Italia osotik, Toskana, Lazio, Liguria, Campania... Gure elkarteak "Ambiente e Futuro" bihurtu genuen. 2004an Rifiuti Zero sarea antolatu genuen Italian, aurretik mundu osoko mugimenduekin ere harremanetan jarrita. Capannori bihurtu zen lehenbiziko Zero Zabor herria Italian. Eta mundu mailako Zero Waste biltzarra 2009an Napolin antolatu genuen.

Irakurleak oroituko dira Napoliko zaborrez, telebistek irudi ikusgarritz erakutsi zuten Italiako hegoaldeko krisia.

Napolin, eta oro har Campanian, edo nola kudeatzen ziren hondakinak. Agintariek modu burugabea jokatu zuten Campanian, erabat baztertu zuten gaikako bilketa, eta itsu-gorraz bailiran hurrengo apustua egin zuten mega-errauskailu batzuen alde, batere gardenak ez ziren konpainiekin elkartuta.



Errausketaren kontrako mugimenduaren batzarraren ondoren Hernanin ateratako argazkia. Bigarren argazkian, Ercolini konpostagunea bisitatzen.

Napoliko zaborren dramak abiada eman zion milaka herritarren heltze prozesuari, zabor pilatuen erdian gaikako bilketa aldarrikatzen hasteko. Elkarrekin aritu ziren Italiako Rifiuti Zero eta lekuko hainbeste talde eta elkarte, hainbeste bilera, manifestazio eta elkarretaratzetan.

Ez denak bakean bukatuak, hain zuzen ere.

Oraindik begien aurrean dauzkaten 2004ko abuztuaren 29ko irudiak, 30.000 pertsona oinez abiatuak Acerra

herritik erraustegia eraikitzen ari ziren obren aldera, eta jende olde hura nola geldiarazi zuten helikopteroetatik bonba negar eragileak jaurtiz, emakume eta haurren artera. Zero Zabor mezua geldiarazi nahi izan zuten jendea tratatuz etsaia balitz bezala, atsedentlekuak militarizatuz, poliziarekin eraso hon-dakinak hobeto kudeatzeko irrikaz ari ziren herritarren manifestazioa.

Egia da azkenean Acerrako erraustegia egin egin zutela, jendearen borondatearen kontra. Baina aldi berean gaikako atez ateko bilketa eta Zero Zabor eredua

zabalduta Salernon, Beneventon, Avellanon eta beste herri askotan. 2014rako Salernon, bere 140.000 biztanleekin, gaikako bilketan %70 gainditua zuen, ondoren Benevento, Portici, Agerola, Torre del Greco, Maiori, Ravello eta beste askok bezala.

Italiatik zein da Euskal Herrira ekarri duzun mezua?

Hernanin egon nintzen 2010ean, lau aldiz jina naiz geroztik. Duela sei urte gauzak ez zeuden hain argi, batetik beldur handia eragiten zuen erraustetak baina bestetik frogatu beharra geneukan ea Atez Atekoa zen Hernanirentzako soluziorik onena. Gaur esan dezakegu Atez Ateko bilketak eta Zero Zabor praktikarik onenek emaitza onak ematen dituztela Hernanin. Hernanin bezala ikusidut Usurbilen eta badakit Gipuzkoan beste asko ari direla berdin.

Neroni harrituta geratu naiz hemengo konpostatze sistemarekin. Nire iritzian, Europako konpost sistemarik onena dago Hernanin. Gustatuko litzaidake zuen sistema kopiatzea Capannori gure herrian. Baina Zero Zabor sistemaren beste ataletan ere Hernani norabide onean ari da, ziurrenik, gizartea sakonki inplikatu delako, lekuko gizarteak parte hartu nahi duelako Zero Zaborrerako bide horretan.

Indar handiko mezua da hori politikarientzako. Ez naiz ari udal mailako politikariez, ikusi baitut alkatea Zero Zabor bidea sustatzearen oso alde dagoela. Baina indar handiko mezua da Donostiako politikarientzako.

Esaiezu, beraz, Donostiako agintariei.

Ez da posible sustatzea errausteta gizar-teak bultzatzea ari direnean horrelakorik



ZEROWASTEITALY.BLOGSPOT.COM

Azken hitza: Konektatu

"Zero Zabor mugimendua da lokala eta globala. Gure indarra da elkarrekin konektatzea Europa eta mundu mailako batailak. Politikariak, maila oso txikiko politikariak, ez dira ohar-tzen Zero Zabor mugimendu globala dela. Zuen arazoa lekuan bertan daukaten bitartean, politikariak lasai egongo dira, badakite nola kontrolatu. Baina gaia Europan barrena zabaltzen baldin baduzue... Gandhik esan zuen: hasieran mesprextatuko zaituzte edo ignoratuko; gero kriminalizatu egingo zaituzte, hainbeste lagun pertsegitu dituzte erraustetaren lobbyak eta politikariak; eta azkenean irabaziko duzu".

.....

eraiki ez dadin. Europako gobernuak abiatu dira bide beretik. Izan berria naiz Ljubljanan (Eslovenia). Ljubljana da Zero Zabor helburua aldarrikatu duen lehenbiziko hiriburu europarra.

Ljubljana gai baldin bada abiatzeko norabide horretan, ez dut ulertzen zergatik Donostiak, Europako Kultur

Hiriburuak, zergatik itzuli nahi duen iraganera. Ez da posible. Mesedez, oso garrantzitsua da saihestea hanka-sartze tragiko hori.

Errausteta iragana da. Errausteta da gure etorkizuna erretzea. Etorkizuna behar dugu, gazteentzako etorkizuna. Gazteak asko inplikatzeko dira, zeren eta zaborren zorroari begiratzen baitiote etorkizuna daukatenean begiekin. Ezin dugu erre gazteen etorkizuna.

Hau da politikarientzako mezua: gizar-tea egiten ari da berari dagokiona. Zuek, politikook, gauza bera egin behar duzue, hartu lekuko komunitateen helburuak eta eskatu enpresei gauza bera egitea. Ez dugu nahi produktu birziklagaitz edo konpon ezinik, produktu ez-konpostagarriak. Diseinu berria sustatu, hondakinak ekidin, zaborra saihestu. Komunitatea oso ondo ari da, hondakinen %70 eta %80 gaika jasoz. Arazoaren gainerakoa konpontzea dagokie politikariei eta enpresei. Mezua da: demokrazia!

Hemen denek aipatzen dute demokrazia...

Zero Zaborrek izan nahi du halako errepublika zabal bat, praktika onen itsasoa bat egiten duten hainbat nazionalitate eta esperientzien errepublika. Errepublika eder bat behetik zabaldut doana, Zero Zabor behetik gorako mugimendua baita. Demokrazia ekintzan, beren bizilekuan burujabe izan nahi duten jendarteak. Horrelako gizarteek daukate etorkizuna, beheko mailan kontsentsuak eraikitzen dakitenek. Goitik beherako ereduetan, erabakiak hartu egiten dira baina ondoren bete gabe gertatzeko arriskuarekin. Ez, etorkizuna gurea da. ■

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabalduta da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

www.bizkaia.eus



Magufak



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Tarot kartak irakurtzen dituen feminista baten artikulua publikatu dugu *Pikara* aldizkarian berriki. Doinu umoretsu batean, bere jardue- ra defendatu gabe, komentatu zuen esoterismoan ere pertsona LGTB eta queerrak existitzen direla, eta beraz garrantzitsua deritzola astrologian ere heterosexismoaren kontra egiteari. Berehala, iruzkin mordoa jaso dugu, besteak beste: “Feminismoa kakazten duzue zuen magufadekin”. Edota “trol matxistek magufada horiek erabiliko dituzte gure ospe onaren kontra egiteko”.

Baten batek agian ez du ezagutuko “magufo/magufa” hitza. Interneten zabaldu egin dute, “sasi-zientzien” kontra aktibismoan dabiltzaten “eszeptikoek” (kakotxen artean, korronte horrek erabiltzen duen terminologia). Eta zeintzuk dira sasi-zientzia horiek? Mordoa aipatzen dituzte, denak maila berean jarritz: astrologia, homeopatia, ufologia, reflexologia, Bach loreak, akupuntura... Ondorioz, “magufoak” dira zientzian oinarritu ordez “pentsaera magikoan” oinarria daukaten praktikak gustuko dituztenak.

Sumatzen da “magufo” hitzak mesprezu eta iseka kutsua duela. Bi magufo mota daude, eszeptikoen ustez: “Sineskorrek” (horrelako txorakerietan sinesten duten pertsonak) eta “iruzurtiak” (gasteleraz *engañabobos*). Sineskorrek engainatzen dituztenak, etekin ekonomikoa ateratzeko, sendalariak, xamanak, igarleak eta abar dira. Horren arabera, *Pikarako* artikulua idatzitako laguna iruzurtia da, eta, hori dela eta, hedabide serio batek ezin dio horrelako pertsona maltzur bati ahotsik eman.

“Magufo” hitza lehendabizi entzun nuenetik, identitate hori harro onartzea erabaki dut. Bai, egia da, magufa bat naiz eta harro nago. Pertsonen sinesmenak errespetatzen ditudalako;

Diskurtso eszeptikoan patriarkatuaren eta kolonialismoaren aztarna nabariak sumatzen ditut. Alde batetik, paternalismoa: uste dute gu, sineskorrok, tuntunok, salbatu behar gaituztela, iruzurtien kontra egin behar dutela gu engainutik libratzeko. Mendebaldeko medikuntza eta zientzia, logika patriarkalen arabera garatu dira

ibuprofenoa baino senda-landareak nahiago ditudalako; uste dudalako zerbaitek on egiten badizu, berdin duela froga zientifikorik dagoen ala ez. Eta ja-

rrera eszeptiko harroputzak gogaitzen naudelako.

Diskurtso eszeptikoan patriarkatuaren eta kolonialismoaren aztarna nabariak sumatzen ditut. Alde batetik, paternalismoa: uste dute gu, sineskorrok, tuntunok, salbatu behar gaituztela, iruzurtien kontra egin behar dutela gu engainutik libratzeko. Mendebaldeko medikuntza eta zientzia, logika patriarkalen arabera garatu dira. Horren isla bi: emakumeen prozesuen medikalizazioa –hilekoa, haurdunaldia, menopausia–, sexu eta identitate aniztasunaren patologizazioa. Beraz, zientzia hori ez da, inondik inora ere, gustukoen dudaren erlijioa.

Zientzia horiek kulturen aspaldi-ko sinesmenak mesprezuz alboratzen dituztenean, pentsaera kolonialista ageriarazten dute. Kuban Yoruba erlijioarekin (santeria, alegia) eta Erdialdeko Amerikan Maya herrien sinesmenekin harreman estua izan nuen. Oso aberasgarriak izan zitzaizkidan, baina horiekin identifikatu ala ez, gutxienez, Europatik helduta ondo logeko herri horientzat kolonialismoaren kontrako erresistentzia praktikak bezala ulertzea. Kolonbian ere azaldu zidaten gatazka armatuaren emakumezko biktimekin lan egiteko orduan xamanen sendakuntza praktikak oso onuragarriak zirela. Zer axola sasi-zientziak diren ala ez, arimako zauriak sendatzen laguntzen badituzte?

Feminismoan ere badaude “pentsaera magikoa” mehatxutzat jotzen dutenak. Horiei norbaitek erantzun zien, hauxe esanez: “Gaur egun, Erdi Aroan bezala, feminismotik ere, sorginen kontrako kriminalizazioa mantentzen da”. Sorgin garaikideak gustukoak izan ala ez, horiek baino kalte gehiago eragin eta etekin ekonomiko handiagoak ateratzen dituzten maltzur boteretsuak badaude. Esaterako, botika-industria. ■

Ekintzaile izan nahiari buruz



Irati Elorrieta

IDAZLEA

Irakurketa ekintza aktiboa omen da eta ez dut kontrakoa argudiatuko.

Irakurtzea beste aktibitate mota batzuetarako traba ere izan daiteke ordea. Irakurtzeak xurruptzen digun denbora, energia eta emozioak ez baititugu beste zerbaitean ematen. Orain arte, ez dut ezertxo ere idatzi ahal izan errefuxiatuen krisia delakoaz, errefuxiatuena baino askoz gehiago den krisiaz. Ez dut ezer idatzi, eta okerragoa dena, ez dut inolako laguntzarik eskaini (neguko arropak emateaz gain, baina minimorik minimoena besterik ez da hori). Irakurri, ia ez dut beste ezertaz irakurtzen.

Berlinen bizi naiz eta, testuinguru honetan, ohar honek badu garrantzia. Beren bizitokia utzita ihes egin duen milaka eta milaka pertsona heldu baita hona azken hilabeteetan. Hiri berean bizi gara. Are gehiago, ez badira erabaki katastrofikoki txarrak hartzen, hiri berean bizitzen jarraituko dugula espero dut. Askok telebistan edo bestelako pantailetan ikusiko zenituzten irudiak bertatik bertara ikusi ditugu hemen: iazko udazken eta neguan, izena eman eta asilo eskaerak egiteko egoitza nagusiaren ondoko karpetan zain zegoen jendetza. Bolada batez, egunero pasa behar nuen handik eta bularraldean trabeska geratu zitzaizkidan begiradak, irribarreak, ibilerak. Hotzarekin batera sartu zitzaidan ezinegon gorpuztean. Egunerokotasuna eta harekin lotutako kezak alboz uztea lortzen dudanean, nire gorputza sentitzea lortzen dudanean, ezinegonak hortxe estu jarraitzen duela ohartzen naiz.

Larritasun sentimendu horri irteten laguntzeko, badakit zerbaite egin behar dudala. Ez baita bere kabuz desagertuko. Kontrara, haziz eta haziz doa. Egoerak ez badu onera egiten, zergatik egin

beharko luke onera larriminak? Gure etxetik kilometro bateko radioan hiru aterpetxe daude, bakoitza 200 bat biztanlerekin. Prentsan irakurtzen dudana oso zail da ulertzen, irudikatzen, prozesatzan. Baina etxetik hamar minutura dudana konkretua da: asilo eskaera egin eta itxaroten dagoen jendea.

Aterpetxearen aurrean egoten dira batzuk zigarroak erretzen, telefonoz hitz egiten, xakean jokatzen. Paperak egiten ez diet lagunduko, ez baitut burokrazia alemaniarraren munstroa menperatzen ikasi. Baina badaude hainbat eta hainbat aukera, norberaren gaitasunetara moldatuak, ez? (Batzuei kosta egiten zaigu horri ere erantzutea: “Zertarako naiz gai?”). Gure lagun bat ostiraletan gaztetxeekin eskalatzea joaten da. Ez dakit zenbat irakurriko duen, baina ateratzen ditu astean pare bat ordu bere inguruan gertatzen ari denarekin inplikatzeko. Batzuk ekintzara pasatzen dira horren beharra dagoenean; eta beste batzuk tragediaz irakurtze hutsarekin itotzen gara.

Pertsonen migrazio mugimendu erraldoi honi alde askotatik begiratu eta heldu beharko zaio. Baina herritar arrunt bezala, gauza bakarra egin dezaket: hemen babesa eskatzen dutenei ongietorria adierazteko nire modua aurkitzea. Buru barruan soilik ditugun ideia edo jarrerak ez baitute benetakako ondorioirik. Tamalez, buruan darabilgurenaren eta gure ekintzen –edo ekintza ezaren– arteko diskordantziarekin bizi gara nahi baino gehiagotan. Hitza ematen dut: ez dut berriro gai honetaz idatziko ekintzara pasatzen ez naizen bitartean. Gutxiago irakurri eta zerbaite konkretua egiten hasten naizen egunean, kontatuko dizuet. ■



Antton Olariaga

Gure lurralde liberatua



Aingeru Epaltza

IDAZLEA

@AEpaltza

Harako "autobia, erokeria!" hura ez zait oroimenetik joan. Beharbada horregatik, tentuz ibiltzen naiz mota guztietako obra handien proiektuak eztabaidaren plazara ekartzen direlarik. Milaka jenderen joan-etorriak aisatu dituzte Leitzarango lau erraiek. Haiek gabe, basamortu ekonomiko eta soziala lirakeke gaur egun Larraun, Lekunberri edo Leitza aldea. Itoizko urtegiarekin, kontrara gertatzen da. Agoitz inguruari ezarri dion arrisku objektiboaz gain, haren erruz inoiz baino basamortuago dira Artzibar eta Longida. Erriberako nekazaritzari ekarriko dizkion onurek, gainera, nekez berdinduko dute presaren eraikuntzan eta oraingo kanalean xahutzen ari diren dirutza.

Aroztegiko proiektuaren inguruan Baztanen piztu den auziak, berriz, ez zerurako ez lurrerako nauka. Gisako egitasmo handiekiko mesfidantzak ez dit ahantzarazten Baztanek eta, oro har, Nafarroako mendialdeak duten bulkada beharra. Tamalez, aziendak, landetxeak eta bentak ez dira aski urtez urte gazteriaz hustuz doan eskualdean.

Nonbait, euskara galduan aterako da Aroztegiak aitzina eginez gero. Litekeena da. Burdin Arotik, seguru aski, aldaketa sozio-ekonomikoei eragin izan diote gure hizkuntzaren egoerari. Hain zuzen ere, euskararen miraria da nola hartu ahal izan dien gaina aldaketa horiei, gaurdaino bederen.

Arnasguneen kontzeptua oso maitea du egungo euskalgintzak. Gure lurralde liberatua. Euskaldunik baiizen ezten lekhua. Infernu diglosikoan bizi garenondako, zerua. Arriskutsua deritzot, ordea, halako tokiak erreserba naturalak balira bezala zaintzeko eta bertako biztanleak galtzeko zorian dauden espezieen gisa tratatzeko nahikeriari. Ulertzekoa da turismo masiboak euskaltzaleen baitan sorrarazten duen kezka. Iparraldeko eredu ez da gogo-pizgarririk hobereena. Zorionez, baiditugu bertzelako adibideak. Zarautz eta Lekeitio euskaldunagoak lirakeke turismorik gabe? Euskalduntasuna, beren ADNan itsatsita eraman ez ezik, milaka kanpotarri eskaintzen diote, hondartzarekin eta ostalaritzarekin batean, diru iturri.

Karlistek mundu berriaren kontrako hesia zelako maite zuten euskara. Lehenbiziko nazionalistak ere ez zebiltzan pentsamendu horretatik urruti. Horren ifrentzuan, euskaldun aunitzek miseriarekin, atzerapenarekin eta bazterkeriarekin lotu izan dute beren hizkuntza. Inork ez luke hautatu behar aurrerapena edo euskara, bizi-maila edo euskara, lana edo euskara, etxe eroso edo euskara, mundua edo euskara. Gure hizkuntza galduan aterako da beti.

Baztanek Aroztegiari ezetz erran behar badio, izan dadila ingurumenari kalte egiten diolako, langabezia konponduko ez duelako edo/eta golf-jokalaririk begi parean ikusi nahi ez dutelako. Ez euskarari kalte eginen dion beldurrez. ■

Hanka-hutsik



Edu Zelaieta

IDAZLEA

Gainbehera heldu da munduko prentsaren askatasuna, *Freedom House* erakundearen arabera. 2015 urteari buruzko txostenean agertu berri duenez, munduko bizilagunen %13 baino ez da bizi prentsa askatasuna bermatua dagoen estatu batean. Iparralde eta Hegoalde beren baitan hartzen duten Frantzia eta Espainia ehuneko pribilegiatu murriztean daudela ikusi dut, Europako 26. lekuan berdinduta. Jakizu, ARGIAko irakurle, Europako rankingean dagoen hurrengo estatua Italia dela, eta (dagoeneko) *partly free* delako multzoan dagoela.

Urtero argitaratzen den ikerketaren arabera, eta munduko botere-gune nagusietatik ema-

ten diren mezuen kontra, ez dirudi, momentuz behintzat, XXI. mendea prentsa askatasuna lortzeko garai egokia denik: XX. mendearen bukaeran baino makurrago bide gaude orain. Tamalez, zenbait arlotan gertatzen den bezala, normala izan beharko lukeen egoera salbuespena da mundu osoari begiratzen badiogu.

Ez dut gurean hain modako dagoen *Basque Country* aurkitu txostenean. Alabaina, ospe oneko estatuetan gertatutako askatasun murrizketak direla eta, hainbat lerro eskaintzen zaizkie Frantziari eta Espainiari: bertan ere zakurrak hanka-hutsik. Eta mozalak indarrean. ■

Lorpen baten gazi-goza

Bipartidismoaren bizkarrezurra apurtzeko jaio eta jada apurturik zegoen lekuetan baizik ez lortu. Lorpen baten gazi-goza: alegia, espainiar nazionalismoak jende gehiagori nazka ematen dioneko lurralde periferikoetan baizik ez lortu izana. Izan ere, espainiar nazionalismoak elikatu duen bipartidismoak (eta *viceversa*) ahulago bai, baina tente jarraitu du. Gainditzeke du proba hori, oraindik, 2011ko M15en uberan jaio eta 2015eko A20an koskortu egin zen izaki politiko berri hark.

Kontuan hartzekoa da, interesgarri eta eskertzekoa, Gorka Bereziartuak aldizkari honen 2016/05/15eko zenbakian dioena izaki berri politiko horren lorpenaz, EAERI dagokionez (Euskal Herria aipatzen du Bereziartuak, baina azterketa EAETik bakarrik begiraturik agertu zait niri). Nik bertze hari batetik tiraka azaldu nahi dut, labur-zurrean, fenomeno horri buruzko hausnarrean, Gorkarenaren osagarri: hau da, espainiar nazionalismoaz bertzelako nazionalismoek gainditzeke duten erronkaz.

Frankismoa ofizialki desagertu zeneztik hona, fenomeno ezaguna da hauteskunde emaitzetan: nazio "periferikoetako" emaitza desberdinak, zer-nolako hauteskundeak diren; nabarmenago edo apalago, joera bat ikusi izan da



Bixente Serrano Izko

IDAZLEA

@Bixentesi

Hego Euskal Herrian
(bereziki argiago Nafarroan)
badago masa bat,
zeinarentzat autonomia
kontuak kontu
espainiar bat baitira

hauteskunde deialdi guztietan: estatu obedientziatzko indarrek boto gehiago lortu ohi dute hauteskunde orokorretan, eremu autonomikoetako hauteskundeetan baino (horietan ere indar bozkatuenak beti ez izanik). Zerbait adierazten du horrek, Hego Euskal

Herrian (bereziki argiago Nafarroan) ere: badagoela masa bat, zeinarentzat autonomia kontuak kontu espainiar bat baitira. Erran nahi baita, masa bat, lasai asko uste duena estatu eremuko gobernagarritasuna estatu eremuko indar politikoei dagokien kontua dela, nahiz eta onartu etxe-eremuko (nazio edo erkidego autonomoetako) indar politikoei dagokiela etxeko kudeaketa. Arrunt bezain bitxia: hauteskunde autonomikoak kontu lokalak izanen bailiran, udal hauteskundeen mailakoak, hor nonbait. Mentalitate horrek elikatu du estatu eremuko bipartidismoa gure eremuetatik ere, lagungarri izan zaio espainiar nazionalismoak elikaturiko bipartidismo "naturalari". Eta nekez bai nekez lortuko da bipartidismo horri bizkarrezurra apurtzea estatu eremuan mailua PSOEk izan artean, eta bereziki eremu "periferikoetako" indarrak gihartsu agertu ezean, "sorpasoa" eta guzti.

Bipartidismoa kontserbadore (orain artekoa) edo irekiagoa izan, nola ez oparitu indar "periferikoek" txeke zuri bat espainiar eremuko, hauxe gainditzeke dugun ikasgaia. Nabarmenago utzi digutena 2015eko A20an koskortu egin zen izaki politiko berri horren lorpenek gurean eta haren porrotak Espainian. ■



euskal herriko bilgune feminista

Martin Ugalde Kultur Parkea
Andoain (Gipuzkoa)

☎ 943 59 09 02

www.bilgunefeminista.eus

Euskal Herriko Euskaraz
Kale Berria, 4-6 / 1. ezkerre · Iruñea
☎ 664 028 604
www.euskalherrianeuskaraz.eus



Zelai Haundi, 3
Osinalde Industrialdea
Usurbil (Gipuzkoa)

☎ 943 363 040

www.elhuyar.eus



ERRAUSTEGIAREN
AURKAKO MUGIMENDUA

Izena emateko:
www.erraustuez.org

ONKOLOGIKOA - DIPUTAZIOA



MAIATZAK

29

11:30ean

OSASUNAREN
ALDEKO
GIZA KATEA
ERRAUSTEGIAREN KONTRA

ONKOLOGIKOA - DIPUTAZIOA

CETA

Oharkabea, hemen dugu TTIPen anaia zaharra / klona

Greenpeacek zabalduko ezkutuko agiriei esker, badirudi AEBen eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askeko hitzarmenak (TTIP) lortu duela, azkenik, txoko bat iritzi publikoan, txoko txikia bada ere. Are arreata urriagoa bereganatzen ari da Kanadak eta Europak honezkero sinatuta –baina oraindik onartzeke– duten molde bereko akordioa: CETA. Datozen hilabeteotan hasiko da EBN berreste prozesua; haren aurkarien esanetan, dakartzan mehatxuak TTIPen berdin-berdinak dira.



Unai Brea
@unaibrea

“CETA aurrera aterako balitz, alferrikoa izango litzateke TTIP geldiaraztea”. Florent Marcellesi europar legebiltzarkideak *Eldiario.es* agerkarian idatzitako artikulu batetik hartu ditugu hitzak, baina ñabardurak ñabardura haiekin bat etorriko da merkataritza askeko akordioen mehatxuez sentiberatasun amiñi bat duen edonor.

Sentiberatasun horren talaiatik ikusita, TTIP baino arrisku suagoa deritza Marcellesik haren baliokide kanadar-europarrari. Arrazoi nagusia kronologikoa da: CETAREN negoziazio fasea amaituta dago –2014an sinatu zuten akordioa bi aldeek–, eta berrestea baino ez da falta. Ia segurtasun osoz, ekainean zehaztuko da berrespen prozesua nolakoa izango den, eta udazkenean ekingo zaio.

“CETA oso mobilizazio gutxi eragin du gurean, eta eragin duena TTIPi lotutakoa izan da; bestela guztiz oharkabea igaroko zatekeen”, dio Jose Ramon Mariñok, Euskal Herrian TTIPari ez! kanpainako eledunetako batek. Nabarmendu duenez, bi hitzarmenen ondorioak berdinak dira. Ez bakarrik oso antzekoak izango direlako –TTIPez dakigutetik hala ondorioztatu daiteke–, baizik eta funtsean Kanadako eta AEBetako ekonomiak oso lotuta daudelako. “Mun-

duan barna mugitzen diren AEBetako enpresa guztiek dituzte ordezkariak edo adarrak Kanadan”, diosku Mariñok. Zertan eragingo du horrek zehazki?

AEBetako transnazonalentzako atea

TTIPek aurreikusten duen mekanismoetako bat inbertsiogile eta estatuen arteko ebazpen-auzitegiak dira. Mota horretako auzitegiak aspalditik daude txertatuta nazioarteko merkataritzaren zuzenbidean, eta EBk sinatuta dituen hainbat akordioaren barruan ere badaude, baina ez dute ia polemikarik eragin TTIPen aurkako erantzun soziala piztu arte. Oro har, ingelesezko ISDS siglekin izendatzen dira.

ISDSen bitartez, atzerriko konpainia batek estatu edo eskualde baten kontrako salaketa jar dezake, hark onartutako legediak kalte egin diola –irabaziak gutxitzea izan daiteke kalte bat– uste badu. Auzitegi horiek emandako epaiak direla-eta, zenbait estatuk milaka milioi euro –edo dolar– ordaindu behar izan dizkiete honezkero enpresa transnazonalei, ingurumena edota kontsumitzaileen osasuna babesteko arauak onartzeagatik.

ISDSek sortutako desadostasuna ikusita –ez jendarte zibilean bakarrik, baita

TTIPen alde dauden zenbait indar politiko esanguratsutan ere–, Europako Batzordeak beste mota bateko auzitegia proposatu zuen 2015ean, eta ustez hori ari da defendatzen TTIPen negoziazio mahaian. Auzitegi berri horiek ICS izena dute, eta merkataritza askeko akordioen aurkarien esanetan, funtsean ez dute desberdintasun azpimarragarririk ISDSen aldean, berdin ematen baitiete aukera konpainiei, gobernuek onartutako legedien aurka jotzeko.

ICSen figura sortu zenerako CETAREN testua onartuta eta sinatuta zegoen, ISDSak barne, baina Europako Batzordeak Ottawari hitzarmenaren errebisioa eskatu eta hark onetsita ICSEK hartu zuten ISDSen lekua. Bata zein bestea, ondorioa da Kanadan adar bat duen edozein estatubatuar enpresak –eta ia denek dute, ikusi dugunez– atea zabalik izango duela europar araudiagatik kalte-ordainak eskatzeko, TTIP onartzeko zain egon gabe.

Nork berretsi behar du CETA?

Otsailetik, CETA itzulpen prozesuan dago. Europar Batasuneko hizkuntza ofizial guztietan bertsio bana behar da, eta hori ez da ahuntzaren gauerdiko ez-tula. Oso hizkera konplexuko testua iz-





WOLFGANG KUMM / AFP / GETTY IMAGES

nik, ezin zaio zirrikiturik estuena ere utzi interpretazio askeari. Horregatik, ekainera arte luzatuko da itzulpen lana. Ondoren finkatuko dira hitzarmena berresteko prozedura eta egutegia.

Europako Kontseiluari dagokio berrespenaren subjektua nor den erabakitzea; Batasuneko merkataritza ministroei, zehazki. Europar araudiaren arabera, merkataritza hitzarmen arruntak Europak Batzordearen eskumen eskusiboa dira, baina mistoak badira, hau da, estatuen burujabetzari dagokien arloetan eragina izan badezakete, estatu guzti-guztiek onetsi beharko dute. Zalantza gutxi dago bai CETA bai TTIP mistoak direla, baina itxura denez interpretaziorako ate bat zabaldu nahi dute akordiook indarrean ikusi nahi dituztenek.

“Larriena ez da hori”, azaldu digu Jose Ramon Mariñok, “larriena da Kontseiluak behin-behineko onarpena egitea erabaki dezakeela, hots, CETA indarrean sar liteke Europako Parlamentuak dioenaren zain egon gabe ere”. Gerora Parlamentuak hitzarmena onartuko ez balu, ordurako inbertsio bat abiatutako konpainiek aukera eduki lezakete ICSeen bitartez salaketak ipintzeko. Edozelan, nahikoa argi dago Eurolegebiltzarrak CETA berretsiko duela, eta estatuen al-

detik ere aurkako jarrerarik ez da espero. Zalantza txikiak egon daitezke, arrazoi desberdinengatik, zenbait estatuk

izango duten jarreraz, baina oraingoz bederen Europako Batzordean inor ez da loa galtzen ari horregatik. ■

NORI EGITEN DIO MESEDE TTIP-EN DOKUMENTUEN FILTRAZIOAK?

Maiatzaren 1ean, Holandako Greenpeacek TTIPen negoziazioetako zenbait agiri ezku argitaratu zituen, filtrazio baten bidez jaso eta gero. AEBen jarrera erakusten dute dokumentu horietako batzuek; beste batzuk, berriz, dagoeneko bi aldeek adostutakoak lirateke.

Ez da izan TTIPi buruzko lehen filtrazioa, baina bai, alde handiz, hedabideen arreta gehien erakarri duena. Batez ere, beren ildo editorialaren barruan TTIPen aldeko jarrera agertzen dutenak ez-ohiko tartea eskaini diote gaiari. Kasu askotan, publiko egindako dokumentuen zabalpena baliatu izan da Europako Batzordeak AEBen zenbait nahiren aurrean agertutako jarrera irmoa “txalotzeko”. Beste batzuentzat –baita ezkerreagoko posizioetatik ere– filtratutakoak aditzera ematen du nekez lortuko dela akordioa gauzatzea.

Analisi horien arabera, agiriekin frogatuko lukete Europa ez dagoela prest zenbait “marra gorri” zapalduak izan daitezkeen TTIPen erruz. Hain justu, akordioaren aurkarien kezka eragiten duten gaiak dira marra gorriak: lan eskubideak urardotzea, ingurumenaren eta osasunaren babesa ahultzea... Adibide bat: Angel Toña EAEko Enplegu eta Gizarte Politikako sailburuak esan berri du Eusko Jaurlaritzak TTIPen alde egongo dela baldin eta Europak ezarritako marra horiek errespetatzen badira.

TTIPen aurkako kanpaina daudenentzat agiriaren filtrazioa arma bihurtu da: akordioaren kontra egoteko arrazoiak egiazkoak direla baieztatzen die. Baina pribatuki zuhurtiaz jokatu behar dela ere aipatu dute. Sinpleki esateko: AEBen jarrera “gogorra” nabarmen-tzeak balio lezake etorkizunean EBren proposamen “leunago” batzuk justifikatzeko.

Claude Vaillancourt

Attac-Quebec elkarteko presidentea:

“Zerbitzuen pribatizazioari irekitzen dio bidea CETAk”

Badu hogei urte pasa merkataritza askeen aldeko akordioak izenpetzen dabilela Kanada, eta Vaillancourtek dioenez, herritarrek amore emanik, Ekonomia eta Merkataritza Hitzarmen Osoaren (CETA) aurkako mobilizazioa ez dabil azkar. Alta, ondorio konkretu latzak pairatzen dabilta merkataritza logika horren ondorioz. CETAk ekarriko luke merkatu publikoek ateak konkurrentziari irekitzea. Hor du kaltearen itzala ikusten. Akordio horrek herrien eta herritarren botere galtzea dakar, multinazionalen onuran.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jenofa Berhokoirigoin

Merkataritza trukaketak erraztu eta ekonomia bultzatuko duela diote akordioaren aldekoek.

Kanada eta Europar Batasunaren arteko merkatuak oso irekiak dira; aduana zergak oso apalak izanki, errazki egin daitezke trukaketak. Preziozkoak ez diren hesiak dituzte traban merkataritza askeen aldekoek, hots, herritarrek babesteko finkaturiko neurriak. Mugatze edota kontrol horiek dituzte jomugan.

Aduana zerga nahiko altuak dituen sektore bakarrenetakoa da laborantza. Babes horren bukaera ere badakar akordioak.

Herri batek bere laborantza babestu ahal izateko dira aduana zergak finkaturik. Maleruski, prezioen bidezko hesi horien kentzea ohikoa da merkataritza askeen aldeko akordioetan. Idi eta zerri ekoizle potoloen alde doa erabakia. Bertako agro-industriakoek esportatzen ahalko dutela aurreikusten du Kanadak, baina ez zaie erraza izanzen, europar araubideak zorrotzagoak direlako. CETAk ez du ezer onik ekarriko: esportazioan oinarrituriko agro-industriaren

sustapena dakar, eta gainera, trabak jarritzen dizkiete kalitatezko ekoizpenean dabiltazen laborari txikiei.

Gobernu federalak ez ezik, probintziek ere parte hartu dute negoziaketetan.

Merkatu publikoak ireki nahi izan dituzte akordio honekin. Gobernu federalak, probintziek zein herriek egindako eskaintza deialdiei erantzuten ahalko diete Europako konpainiek ere. Horretarako probintzien oniritzia beharrezkoa ukanki, negoziaketetara gomitatu zituzten; baina dena dela, Kanadako Gobernuak du azken hitza.

Merkatu publikoen irekitzea ez da ondoriorik gabekoa izanen.

CETArekin alde larrienetarikoa da merkatu publikoen irekitze hori. Tokiko ekonomia edota garapena bultzatzeko erabili ohi dituzte instituzioek merkatu publikoak. CETArekin ordea, lehiakorrak diren multinazional handiek dituzte eskaintza deialdi gehienak eskuratu. Gobernuen kontrola galtzea dakar akordioak.

Nekez iraunen dute tokiko enpresa txikiak.

Tokiko enpresa txikiaren eta multinazional erraldoiaren artean argi da zein duen merkatua lortuko. Hautu horrek ondorioak ukan ditzake eskaintakoaren kalitatean, baina inbertsioetan ere bai, tokiko konpainiek askoz gehiago inbertitzen dutelako tokiko ekonomian. Atzerriko enpresek obratu bai, baina egindako etekinak atzerrira joango dira berdin-berdin.

Diskriminazio ezaren printzipioa dela eta, bertakoa lehenestea ezinezkoa izango zaie erakunde publikoei.

Zenbateko zehatz batez goragoko merkatu publikoak dira nazioarteko konkurrentziari ireki beharko; baina azken finean, gehienak dira irekiak izanen, zenbateko hori nahiko apala izanki. Diskriminazio ezaren printzipioaren izenean ezingo da tokiko enplegurik edota ingurumen-praktika berezirik lehenetsi. Proposamen merkeena eginen duenak du merkatua lortuko.



Elektrizitate zerbitzua publikoa duzue Quebecen. Sektorearen pribatizazioaz beldur ote zara?

Hydro-Quebec konpainia publikoaren zati bat konkurrentziari irekiko dio CETAk. Zirrikitu bat da zerbitzuaren sail batzuen irekitze hori, eskaintza deialdien biderkatze arriskua hor dagoelako. Puskaka etor litekeen zerbitzuen pribatizazioari irekitzen dio bidea akordioak.

Uraren zerbitzua akordiotik kanpo gelditu omen da.

Akordiotik baztertua omen da uraren kudeaketa. Baina, hiri batek erabakitzen badu kudeaketa publikoa uztea eta eskaintza dei bat egitea, inolako trabarik gabe egiten ahalko du.

Enpresek gobernuak auziperatzen ahalko dituzte, konkurrentzia trabatzea leporaturik.

Inbertisiogile eta Estatuaren arteko desadostasunen konponbiderako mekanismoa deitzen zaio horri. Oso-oso larria da. Gehien gaitzetsiriko aspektua da, batez ere European, baina hemen ere bai.

Etekinak egiteko bidean oztopo baldin badu, enpresak erakunde publikoa auziperatzen ahalko du. Aurreikusiriko etekinentzat ere balioko du, hau da, proiektu bat egiteak ekarriko lukeen etekinei begiraturik, auzitegi horien bidez kalte-ordainak exijitzen ahalko dituzte. Mekanismo horri esker, araubideetan esku hartzen ahalko dute enpresek. Lobbygintza tresna indartsu bat ere izango da, lege ala araubide bat prestatzerakoan mehatxatzen ahalko dituztelako.

Ipar Amerikako Merkataritza Askerako Elkartea (NAFTA) akordioak ere ahalbidetzen du mekanismo hori. Behin baino gehiagotan erabili izan dute.

Bi etsenplu gertatu berri ditugu. Batek, Quebecoko Gobernuari 250 milioi dolarreko kalte ordaina exijitzen dio Lone Pine Resources estatubatuar konpainiak, moratoria baten ondorioz petrolio ez-konbentzionala ustiatzea debekatua zaielako San Laurendi ibaian. Bestetik, Transcanada kanadar konpainiak 15.000 milioi dolar eskatzen dizkio AEBetako Gobernuari, KeystoneXL

“CETArekin, lehiakorrek diren multinazional handiek dituzte eskaintza deialdi gehienak eskuratuko. Gobernuen kontrola galtzea dakar akordioak”

“Diskriminazio ezaren printzipioaren izenean ezingo da tokiko enplegurik edota ingurumen-praktika berezirik ezarri. Proposamen merkeena eginen duenak du merkatua lortuko”

oliobidearen eraikuntza debekatzeko erabakia hartu zuelako. Alta, bi erabaki politiko horiek demokratikoki hartu zituzten, herri mugimendu baten ondorioz, ingurumenerako kaltegarri zirelako.

Kanadan petrolioaren ustiapena gehiegizkoa eta konpainien lobbya ere ikaragarria da. Arlo horretan dira mehatxu gehienak egongo.

Hori horrela da, bai. Haatik, mekanismo hori erreformatzea lortu dugu eta normalki ez ditu ingurumenari buruzko jaukimenduak hunkiko. Aitzinamendu bat da, baina oso eszeptiko gelditzen gara, jaukimendu bat modu anitzetara adieraz daitekeelako eta ingurumena zuzenki eta zehazki jomugan baldin bada ere, jukutrien bidez jaukimenduan saihesten ahalko dutelako.

Kultura akordiotik at geldituko dea?

UNESCOren kulturaren aniztasunaren aldeko hitzarmenari segi, kultura akordiotik ateratzea eskatua izan zen. Alta, kultura negoziatu dute, negoziaketan

parte egon da eta kapituluz kapitulu saihestu nahi izan dute. Egin-molde horri begira bi ikuspuntu daude: batzuek diote egin beharrekoa egin dela eta kultura ongi babesturik dela, eta beste batzuek, aldiz, ez dela hain ongi babesturik, baztertze sistema hori arriskutsua izan daitekeelako eta negoziatzaileen jokoan sartu garelako, hitzarmenaren izpiritua errespetatu gabe.

Zuk zer diozu?

Nire eta Attac-Quebec erakundearen us-tez, kultura ez da behar zukeen heinean babestu eta arriskua hor dago. Negozia-ketetatik kanpo gelditu behar zuen.

Merkataritza askeen aldeko beste akordio bat izenpetzekotan da, beraz, Kanada. 1994an izenpetu zuen NAFTA, AEB eta Mexikorekin. Inoiz ez dute akordioaren balorapenik egin.

Balorapen ofizialik ez da egon. Benetako azterketa neutro eta globalik egin gabe, beste akordio batean abiatu izana deitoratzen diogu Kanadari.

Zein da zuen balorapena?

Aurreikusiriko emaitzak ez dira agertu. NAFTAk manufakturaren sektorea ahultzea ekarri digu. Baliabide naturalak esportatzen gabilta, baina manufaktura bano enplegu gutxiago dakartzatza sektore horrek. Gainera, aldakortasun ekonomiko handia dakar, baliabide naturalen trukaneurriak erabat kanbiakorrak direlako. Ekonomikoki ahuldu gaitu NAFTAk. Izugarritzko ondorio txarrrak eragin ditu Mexikoko laborarien artean ere. AEBetako artoen esportazioa dela-eta, sekulako sarraskia eragin du hango laborantzan. Erran gabe doa inbertsiogile eta estatuen arteko desadostasunen konponbiderako mekanismoa arazo larri bat dela.

Sustatzaileen argumentuari so eginda, merkataritza trukaketak emendatu al ditu NAFTAk?

Bai, emendatu dira. Baina 1994az geroztik AEB mundu mailako kontsumitzaile bilakatu da, eta merkataritza askeen aldeko akordiorik izenpetu gabe ere, AEBetara egin esportazioak anitz emendatu dira herri anitzentzat. Beraz, lasterbide eztabaidagarria iruditzen zait erratea gure esportazioak NAFTAri esker emendatu direla. Helbide erraza-goa bat ukaiteko asmoz zuen Kanadak



CETArek aurkako protesta Kanadako Parlamentuaren aitzinean. Akordioaren aurkarien esanetan, transnazioalek baliatuko duten Troiako zaldia izango da CETA, ohartu orduko herritarren eskubideak murriztuko dituen merkataritza sustatzearen aitzakian.

akordioa izenpetu, baina ohartzen gara, proportzionalki, helbide hobe genduela akordioa izenpetu aitzin.

Nolaz?

Txinak eta beste herri esportatzaile batzuek kopuru alimalean esportatzen dituztelako produktu merkeak. Ezin duguenez horrelakorik egin, ez ditugu gehiago produktu horiek hainbeste ekoizten.

Ondorio sozialak ere ukango zituen NAFTAk.

Langabezia-asegurua hiru erreforma gertatu ziren NAFTArekin batera. Nahiz eta loturarik ez dela zehaztu gogernuak, zalantzak ditut. Arrazoi-ondorio lotura begi-bistakoa izan ez arren, erran dezakegu laguntza sozialak ahulduz joan direla eta AEBetako geriza sistemara hurbildu gara.

Zertan da CETArek aurkako mobilizazioa?

Atsekabetzen nau, Europan askoz gehiago sendi da. Herritarrek sentsibilizatzeko zailtasunak ditugu, badirudi amore eman genduela eta merkataritza askea onarturik dugula.

NAFTArek negoziaketaren garaian azkarra-goa izan zen?

Bai, baina hogeit urte pasa dira geroztik. Garaian eztabaida publiko bat egon zen, alderdi politikoen aurkakotasuna azkarra-goa zen. Gaur egun ia alderdi guztiak dira edo alde edo neutro. Quebec Solidaire eta PV Kanadako Alderdi Berdea izan ezik, inor ez da aurka mintzo. Arazoa da bi alderdi horiek aulki gutxi dituztela Parlamentuan. ■

Unibertsitate Master Ofiziala

GIZARTE EKONOMIA ETA EKONOMIA SOLIDARIOA

Izena ON LINE bidez emango da UPV/EHU web orrialdean

www.ehu.eus/eu/web/economiasocialysolidaria

Informazio gehiago

gezki@ehu.eus

Tel. +34 943 01 74 98

Antolatzailea:



garaibide erebepi

Jose Arana 13 · Eskoriatza (Gipuzkoa)

☎ 943 250 397

www.garaibide.eus



Nafarroa etorbidea, 23 / 1.

Arrasate (Gipuzkoa)

www.txatxilipurdi.com

Lasarte-Oriaren berreuskalduntzea

EDERKI IZERDITUTA LORTUTAKO MIRARIA

Lasarte-Oria euskararen bilakaera. Atzera begira, aurrera begiratzeko mahai-ingurua. Hizlariak, Mailu Arruti, Pello Sasiain eta Marga Iturriza, harro daude lortutakoaz. Atzera begira hasi eta irribarrea ateratzen zaie. Biztanleen %80 inguruk euskararik ez zekien udalerriaz ari dira hizketan. Egun, gazteen %85 da euskaraz hitz egiteko gai. Iturrizak "miraria"ren bi giltza esaldi bakarrean bildu ditu: trebetasun politikoak eta gaitasun teknikoak bat egin zuten.

ARGIAk Ttakun kultur elkartearekin batera antolatu zuen mahai-ingurua maiatzaren 12an, bi eragileek antolatutako *Lasarte-Oria ikusteko beste betaurrekoak* ekimenaren barruan.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

3.000 biztanletik 18.000ra

Berezia baita Lasarte-Oria. 1986an hartu zuen udalerrri izaera, aurrez Lasarte Hernanikoa zen eta Oria Urnietakoa. 1950eko hamarkadatik 80ko urteak arte ezagutu zuen immigrazioa, batik bat Espainiako Estatutik. Michelin enpresak eta beste hainbatek erakarri zituen langileak. "Lasarte-Oria etxe pilaketa baino ez zen, ez herri izaerarik, ez nortasunik", esango du Mailu Arrutik. Pello Sasiainen ustez, bertakoen jarrera azpimarratzekoa da, "kanpotarrak bere aberriaren izkina batera etorri ziren, hemengoek bertoko sentiarazi zituzten, malgu jokatu zuten haiekin. Badirudi elite batek pentsatutako prozesua izan zela, baina herriak lan oso garrantzitsua egin du. Gure aitona-amonek jarraera humano eta inteligena izan zuten". Gaineratuko du ordea, bertakoek bazeokitela bereizten nor zertara etorria zen, lanera batzuk, estatuaren zeregina betetzera beste batzuk.

Bi hiztun komunitate

Arrutik bi auzo nagusiak egiten ezagutu ditu, Zumaburu eta Sasoeta, eta banaketa fisikoa ere aitortzen du: "Mojen komentuko horretan zegoen muga". Ikastetxeetan desberdintasuna agerikoa zen: "Garaian jarri behar da. Beldur asko zegoen, frankismo bete-betean geunden. Euskaldun askok ez zuten ikastolaren aldeko apustua egin. Eskola publikoan ematen zuten izena hizkuntza-komplexuagatik: izan dadila gu baino gehixeago, ikas dezala espainolez...".

Marga Iturrizak irakaskuntzan bi komunitateak ederki bereizita zeudela uste du: "Ikastolak prestigioa mantentzeko eta indartzeko lana zuen eta eskola publikoaren helburua euskaraz ez zekitenei ematea zen. Batzuek mantentzeko eskubidea zuten eta besteek jasotzekoa. Eskola publikoan ere bazeuden bi komunitate, batzuk euskararen aldekoak eta besteak erabat kontrakoak. Horri buelta eman behar zitzaion".

Sasiainek plaza hizkuntza gaztelania ezagutu zuen, tarteka euskaraz entzuten bazen ere, etxean erabiltzekoa zen: "Jende batek jakin zuen ordea esaten hemen bazela plazaratzen ez zen hizkuntza bat, eta kanpotarrek ikasi zuten euskararekin harremana zuten neurrian hemengoak zirela. Euskararen berreskurapena ideia handiekin lotzen da, baina gure aurrekoen izaeragatik, kanpotarren aurrean hartu zuten jarrerak emaitza batzuk izan zituen". Arrutiren ustez, aldiz, egoerak bestelako norabidea hartu zuen euskarazko eskola behar zela ikusi zenean. Arruti bera Landaberri ikastolako lehen promozioakoa da: "Ez zen hizkuntza berreskuratzeko bakarrik, nazio ikuspegia, herria eraikitzeko gogoia zegoen eta bide bat ikusi zen irakaskuntzatik". Iturrizaren ikasleak udan *al pueblo* joaten ziren. Irakasleak galdetzen zien: "Baina zu non jaio zara?" "Lasarten!". "Orduan aitonaaren herrira joan zara".

Euskarak prestigio gutxi zuen Iturriza eskolan zebilenean: “Gurasoeekin lan handia egin behar zen. Ezkutua altxatzen zuten. Ez zuten hain garbi euskaraz ikasi behar zenik. Horren aldeko apustua egin genuen, baina hala egiteak ez zuen esan nahi denek egin zutenik”.

Lehen erronka haiek

Ehuneko 80k ez zekien euskaraz. Portzentaje hori ibili zen bolo-bolo mahai-inguruan. Gaur egun erabileraz kezkatuta baldin bagaude, “orduan DYAKo sorosleak joan zitzaizkion euskarari eta ahoz ahokoa egin zioten”, dio Arrutik. Euskara ikasi behar zuen jendeak hizkuntza salbatuko bazen. Arrutik berak esango digu: “Bihotz eta anima ibili ginen helduen euskalduntzean. Ikaragarria da 50 urte pasa eta gero atzera begiratu eta lortutakoa. Harro egon beharko genuke. Orain dauzkagun ezagutza eta erabilera tasak? Gaztetxoan erabilerak? Ez da kasualitatea, ingurura begiratu eta gure tankerako herriek errespetu pixka bat badigute gai honetan. Beste gauzetan igoal ez, baina honetan bai”.

Eskola publikoan, Iturrizak ezagutza eta erabileraz gain erronka gehiago nabaritu zituen. Ikuspegi soziolinguistikokoaren beharra, are ikuspegi psikosoziolinguistikokoaren beharra nabarmendu du, bestela aktibismoan erortzeko, eta emankorrak ez izateko arriskua zegoelako. Motibazioa eta atxikimendua sendotu beharra azpimarratu du. Eta hiru “k”k aipatu ditu: kontziente, konpetente eta koherente izatea. Sasiaini harrigarria zitzaion erabiltzen ez zen hizkuntza ikasteko gogo bazegoelako, eskaera zegoelako. Ezagutza zen lehen-tasuna.

Arrakastaren giltza: adostasun politikoa

Arruti, Iturriza eta Sasiainek, hirurek uste dute Lasarte-Orian euskara erdigunean jartzea lortu zela, beste guztiaren gainetik, eta horixe izan dela herriaren berreuskalduntzearen giltza. Hala dio Arrutik: “Oso modan dagoen bizikidetzarekin lotuko dut. Ezberdinen arteko, ez dakit nola deitu... itun isil, idatzi gabeko bat egin zen. Jendeak bat egin zuen egoera linguistikoko gogorrari aurre egiteko. Badakigu euskaldunak ados jartzen ez garela oso iaioak. Kostako zen, baina eskerrak, eta eskerrik asko. Beste gauza batzuekin ez gara batzen, baina hizkuntzarekin hordagoa jo zen eta ondo ateratzen”.

Iturrizak ez zituen ezagutu “ituna”ren garaia, baina antzeman zuen herrira heldu zenean ikuspegi politikoen gainetik egiten zela lan: “Abiapuntu anitz horretatik oso sare konpetentea egin zen. Ttakun zen pieza bat, eta beste bat Udaleko Euskara Zerbitzua. Euskararen alde bat egite hura klabe handienetakoa izan zen. Giltza horrekin toki askotara joan gintezkeen”.

Sasian “ituna”ren garaian EAko zinegotzia zen. Badaki zerbait gaiaz: “Batzuetan erakundetzea politika eremutik egin dela ulertzen da. Hemen ez da horrela izan, gurasoak, euskararen inguruko taldeak, ikastetxeak, udala... denek osatu dute puzzlea”. Eta adostasun politikoz esango du: “Kontserbadoreak, iraultzaileak, ezkerrekoak, eskuinekoak, abertzaleak, erdikoak, goikoak... denak batzea beste gauzetan gatazka iturri bazen, euskarari zegokionez aukera izan behar zuela erabaki genuen. Jende gehiena alde jartzea lortu behar genuen, eta alde jartzea lortzen ez ge-

nuenak errespetuz jardun zezala euskarari buruz”.

24 urtez alderdi sozialistak gehien-go absolutuarekin agindu zuen Lasarte-Orian, eta jarrera frentistatik ez duela izan dio Arrutik, “ezta gutxiagorik ere. Euskara erdigunean jarri zen, aurka-ko jarrerak neutralizatu ziren. Hori belaunaldi batean lortzea kristorena da. Oraingo alkateak, alderdi sozialistakoak, euskaraz hitz egiten du. Orain dela 30 urte zeinek pentsatu behar zuen hori?”.

Sasiainek aurrekontuez daki: “Hernanik hainbesteko aurrekontua bazuen, bada guk zerbait gehiago. Hori bai, gauza batzuk ez genituen konpondu, adibidez, AEK eta udal euskaltegiarena, baina arazoa ez zegoen herrian”.

Iturrizak “ituna”ren garaia esaldi bakarrean bildu du: “Urte batzuetan trebetasun politikoa eta gaitasun teknikoa izan genituen Lasarte-Orian, eta orduan ... puff! oso sare indartsua hedatu zen”.

Zer lortu da?

Laburpena egiteko eskatu diegu mahai-kideei. Arrutik bost mezutan egin du sintesia: “Hizkuntzaren inguruan ezberdinen baturak eman dituen ondorioak iruditzen zait herri gutxitan gertatu direla; kontrako jarrerak neutralizatu dira, herriaren %80k ez zekien euskaraz eta orain %80 edo gehiago euskararen alde daukagu; 50 urtean lortu da hori eta ikaragarria da, eta ez da hizkuntzarekin bakarrik lortu eta ez dakit oso kontziente garen horretaz; herri mugimendutik sortu da, ez da berria baina hemen bada berezitasuna; jendeak oholtzara igotzeko lotsa galtzea lortu da”. Sasiainek bi zutabe nagusi azpimarratu ditu lorpenen artean: ezagutza eta prestigioa.



MAITE PAPER-DENDA
Geltoki kalea, 6 - 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943372791

LUIS CAR
autobusak



Uzturre enparantza, 1
Lasarte-Oria
Tel.: 943 366 316 / 629 46 18 97
luiscarbus62@hotmail.com



Patxi Larrañaga

HARATEGIA
www.patxilarrañaga.com
Tel.: 943372668
Kale Nagusia, 39 • LASARTE-ORIA



DANI BLANCO

Ezkerretik eskuinera, Onintza Irureta (moderatzaila), Pello Sasiain (Eako zinegotzi ohia), Marga Iturriza (Sasoeta -Zumaburu ikastetxeko irakaslea), Mailu Arruti (AEK-ko irakasle ohia), eta Ttakun kultur elkarteko Arantxi Zulaika eta Naiara Mujika.

Eta hemendik aurrera zer?

Lau urtean behin egiten duten Euskaren Maratoia aurkeztu berri dute eta Arrutiri gustatu zaio aurtengo erronka: 300 lagun euskaraz egiteko prest eta 3.000 lagun euskara entzuteko gogoz: "Bazirudien ezagutzak ekarriko zuela erabilera baina ikusi dugu ezetz. Katalanak ez bezala, ez diogu gureari eusten,

sumisoak gara, edukazioz egiten dugu gaztelaniaz. Euskaldunok erronka daukagu horretan".

Iturrizak inertzian erortzeko beldurra du: "Mailuk esan du atzera-bueltarik ez dagoela, baina ekipo motibatua mantentzea erronka da. Gainera, hurrengo belaunaldiari transmititu behar zaio. Lana dago egiteko, lan aberasga-

ria eta pozgarria". Sasiainen ustez, eza gutza eta erakundetzea beharrezkoak dira, baina erabilera indartu behar da. Erabilera prestigioarekin lotzen du, gazteen atxikimendua lortzeko euskararekiko arduraz aritzea proposatzen du, alegia, aurreko belaunaldiekiko eta ondorengoekiko dugun arduraz jokatzea. ■

Josue

Igeltseritza

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa

☎
606 37 21 05
| Atallu pol. atallu, 28
| USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Jean-Michel Coscarat, Baigorriko auzapeza

“HERRITARREN HARREMANAK ALDATZEN ARI DIRA, EUSKARA ORAIN EZ DA POLITIKA AFERA”

Baigorri, 1958. Bi urte auzapeza dela, Aintzina Baigorri hautagaitzaren izenean. Ez dago ezein alderdi politikori atxikia. Sukaldaritza Eskolako irakaslea da Donibane Garazin. Baigorri –herria eta eskualdea– ezaguna da, eta aurren are gehiago ezagutzera eman da: errefuxiatuen krisia dela eta, etorkinak aterpetu ditu duintasunez. Postetxea zabalik atxiki du gartsu. Nafarroaren Eguna arrakastatsua izan da berriz ere. Etxauzia Jauregia erosi nahi dute Nafartarren Etxea antolatzen: “Proiektu hori erreusitzen badugu, Baigorri zerbait handia abiatu dela erakutsiko dugu”, erran digu auzapezak.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Jean-Michel Coscarat abertzalea al da? Zergatik Aintzina Baigorriko zerrendaburu?

Lehenbizi, ez nuen zerrendaburu izan nahi. Antton Kurutxarri abertzalea zen buru, baina, naski, bera buru izan baltz ez zen hautatua aterako. Auzapez gisa aurkeztu nintzelarik, ez nuen has-tetik “abertzale naizen edo ez” erran nahi. Hautatua izanik zenbaitzuk gaitzitu dira: “Orain auzapeza abertzalea da”, entzun da. Ene nahikaria da Euskal Herriarendako zerbaiten egitea, aber-tzale naizela erran gabe ere. Azken 40 urteetako egoera politikoak herriaren elkarbizitza larritu du, anitz jende aber-tzaleen aurka agertu da. Aintzina Baigo-rri taldea abertzaleekin muntatua da, ez da dudarik.

Bi urte egin duzu auzapez karguan. Zer -nolako esperientzia bizi izan duzu?

Sei urtez kontseilari aritu nintzen, oposizioan. Iruditu zitzaidan gauzak ez zirela behar bezala joaten. Jean-Baptiste Lam-

bertek –14 urtez auzapez izandakoak– eta bere taldekoek ez zuten ongi hartu ni auzapez izatea. 19 hautetsi gara, lau oposizioan dira. Ordura arte goberna-tu zuen taldeari buru egiteko, ideia eta alderdi guztietako jendea bildu behar izan genuen. Hastapenean zaila atzeman nuen taldea kudeatzea, beti ez bainaiz ados denekin, ez denetan ere. Baina, bo-rrokak izanki ere, akort jartzen gara. Pa-zientziak laguntzen dit horretan.

Zein dira herriaren behin-behineko behar-rrak?

Lehen-lehenik: Baigorriko biztanleria adinetako jendea da nagusiki. Hori ma-kur handia da, gazteak ez dira herrian gelditzen. Azken lau urteetan 100 biz-tanle galdu dugu. Paradoxa da, elkar-te franko dago –Basaizea da horietako bat–, herria biziarazten dute, baina gazte horietako anitz ez da herrian bizi. Herria hiltzen ari da, komertzioak ixten. Orain gutxira arte zazpi hotel ziren eta orain hiru dira. Iaz 20 etxe inguru baziren sal-

tzeko, ez badugu deus egiten etxe horiek hutsak geratuko dira. Joera hori aldatze-ko enplegua sortu behar dugu. Banka herrira doan bidean lantoki-gunerako proiektua abiatu dugu. Herriaren erdi-gunean komertzioak plantatu nahi dugu.

Oinarrizko zerbitzuak nola daude? Osasun zerbitzua, adibidez?

Lambertek abiatu zuen Osasun Etxea ongi ezartzea izan da lehen zeregina. Proiektua medikurik gabe abiatu zen. Mediki gazte bat izateko xantza ukan dugu. Paristik hona jiteko prest zegoen, baina bere emaztearendako lana eska-tzen zuen. Urte bat pasa zen, proiektua afera politikoa bilakaturik. Nekez, bai-na azkenean medikua jin da. Proiektua abiatu zenean, oposizioan ginenok ez genuen herriak bere gain hartzea nahi, Herri Elkargoak baizik, ibarreko osasun -gunea baita. Azkenik martxan da. 25 langile dira denetara. Osasun zerbitzua ontsa finkatzea funtsezkoa da edozein herritan.



“Jean-René Etchegarai eta bere ondokoek erraztu dute bidea. Berak egin duen lanik gabe, Elkargoa ez zen aitzina joanen. Enbeia eta ausardia behar dira”

Postaren afera entzutetsua izan da. Mobilizazioei esker Baigorri eskualdeak zerbitzu hori atxiki ahal izan du.

Guretzat inportantea zen ibar osoa kon-tuan hartzea. Banka, Aldude eta Urepele barnean izatea. Gazteak sartu dira herriko etxe horietan, ibarra administratzeko moldea aldatu nahi dute. Denok elkarrekin ari izanez, posta-etxea salbatu dugu. Postarik gabe ez zen eskualdearen bizi-moldea amestetik. Manifestazioak egin ditugu, Pauen izan gara, denon artean erreusitu dugu. Hamar bat langile ari dira orain. Arazoa da postariak ez dutela lehen bezainbat gutun banatzen, alta, ibilbide bera egin behar dute. Beraz, haiendako lan osagarriak xerkatu nahi ditugu: hala farmazia nola laborantza inguruko enpresen pusken garraiatzeko. Baigorri ibarreko arazo handietako bat bideko komunikazioa da, trena ez iristea Garazira bezala. Baionatik Garaziraino trena ezarri dute berriz ere. Arrosatik Baigorri baten ere lehenago, 2009 urtetik autobusa zebilen. Ken-

du zuten. Adineko jendeak eta gazteek trena hartu behar badute, Arrosaraino joan behar dute. Beraz, hori konpontzeko, ondoko hilabetetan Banka, Urepele, Aldude eta Baigorri gaindi ibiliko den autobusa ezarriko dugu martxan.

Laborantza funtsezkoa duzue. Alta, zue-na mendiko eskualdea da.

Baigorriko Herri Kontseiluan zazpi laborari ditugu. Laborari gehienek kalitateko mozkinak nahi dituzte erdietsi, ez dute handitu nahi. Orain arte behiak edo ardiak izan dira etxalde tipietako hazkuntza nagusiak, orain mahastiak ere ezarri dira. Laborari etxaldeak galdu badira ere, anitz gazte plantatzen ari da, oraino bada nahikaria. Baina horien laguntzeko komertzioa behar dugu plantatu, horretarako aterabideak atzeman: dela ostatuen laguntzaz dela turismoaren bitartez. Denon artean salbatuko dugu laborantza, eta laborariak ere lagunduko dute beste sektoreak biziarazten. Ez da bertze molderik.

Baigorri herria, Baigorri-Garazi Herri Elkargoan dago. Zer iritzi duzu elkargoaren lanaz?

Nik Urbanismo komisioko lan egin dut. Herri elkargoetan Tokiko Hirigintza Plana (PLU delakoa) lantzen da, baina gurean, 30 herrietatik bakar batek baino ez zuen ahalbide hori. Edozein desmar-txa Donapaleutik [Amikuze eskualdean] bideratu behar izan dugu. Komisio horretan ohartu naiz bazela nahikaria Euskal Herri oso gisan pentsatzeko, denon artean biharko Euskal Herriaz aritzeko. Lana eskasa denez, gazte asko egunero joaten da Baigorritik itsasertzeko herrietara. Beste batzuk han gelditzen dira bizitzen. Herri Elkargo bakarraren bitartez gazteek xantza ukan behar lukete hemen aritzeko. Hasteko, Baionara egunero joan-jina egiten dutenen arazoak kontuan hartu behar ditugu. Asteburuan, hiritik mendira aisialdian jiten direnek beren ibilmoldea aldatu behar dute. Guk 80 kilometro bide daukagu entretenitzeko eta ez dugu aise egiten

ahal. Herri Elkargo bakarrean ontasunak partekatu beharko genituzke. Badi-ra kontrakoak, fite ari garelakoa, baina nik badut esperantza. Jendeak nahikaria baldin badu, erreusitzen ahal dugu.

Herri Elkargo bakarra aipatu duzu: biztanleriaren erdiak eta herrien erdiak baino gehiagok alde bozkatu dute.

Alabaina, biztanleriak ez du gaia usu aipatzen. Hautetsiek gaiari buruz gehiago mintzatu behar diegu herritarrei. Baigorriko Kontseiluan, iragan larrazkenean, lehen bozketan, 17 alde eta bi kontra izan ziren. Berriz ere bozkatu dugu, eta 17 alde eta bi zuri izan dira. Gutxi aldatu da, baina orain nehor ez da kontra, ezta oposizioko hautetsiak ere, auzapez izandako Lambert barne. Izugarria izan da, Baigorri aitzina ari gara. Garazi-Baigorri Herri Elkargoko herri denak ez daude alde, baina gehiengoak bai. Gure ibarreko herri guztietan aldeko jarrera nagusi da.

Zer onura ikusten diozu Herri Elkargo bakarrari?

Hasteko, oraingo Herri Elkargoan ez dago manerarik Baigorri landu nahi dugun herri proiektua plantan ezartzeko. Hain ziur ere, lehen eskasia dirua da. Elkargo bakarrean gauzak ez dira errazak izanen, baina gauzak ez dira makurragoak izaten ahal. Printzipioz, ahalmen gehiago duten herriei ez kontzea ez da okerragoa. Konparazione, Baionan eta Baigorri ez ditugu behar berak. Urbanismoan gauzak arraz ezberdinak dira. Hirigintzari buruz egin ditugun bilkuretan, Maulen, Hazparden edo Garazin izan, bakoitzak bere arrangurak agertu ditu, ulergarriak. Zuberor, konparazione, lanean plantatzeko languneak badaude, baina jendeak ez du han egon nahi. Zerendako? Ez direlako hiriko zerbitzu aski: ez garraio egokirik, ez etxebizitza ukaiteko aukera errazik, ez aisialdirako gunerik. Baigorri bezala funtsean. Beraz, inteligentek izan behar dugu eta elkarren beharrak partekatu. Hiriko jendeak nahi badu barnealdera jin asteburuan edo bakan-tzetan, bide eta zerbitzu onak ezarri behar ditugu, dirua elkarrekin partekatu behar dugu horiek eraikitzeke.

Herriko Etxe handiak zergen aferaz arranguratuta daude. Elkargo bakarraren aurka daudenak, alegia.

Normala da. Proiektua ez da erraza.

EUSKAL TRAILS EKIMENA, LANA SORTZEKO XEDEZ

“Gure aberastasuna mendia da. Baigorriin zazpi hotel izan dira eta orain hiru dira, eta hiru horiek ez dute etorkizun handirik. Inbertsio handiak egin dituzte, baina gero urte osoan ez dute behar bezainbat jende. Lana sortzeko, gure proiektuen artean Euskal Trails sartzen da. Ekainaz geroztik Trails Estazioa izanen da hemen. Duela 20 urte, lehen ekitaldian, 300 parte-hartzaile izan ziren. Aurten, Trails delakoan 3.000 jendeak parte hartu dute lasterka. Jendeak ekitaldia udaldira zabaltzea galdatu du. Orain arte, bideak ez ziren aski zabalik, hemendik aitzina Urepeleraino markatuak izanen dira. Egia erran, ekologistek ez dute onartu proiektua. 30 lagun ari gara, denetarikoa, proiektu hori defendatzeko. Mendian ibiltzen direnek errespetu handia diote inguruneari, ez datoz motorrez, ez dira motorzaleak, oinez heldu dira. Mintzatu gara laborariekin eta ehiztariekin, mendian ibiltzen diren guztiekin, eta ez dute begi txarrez ikusi. Baztango herriei buruz bidexkak prestatzen badira, horretan ere ekonomia bultzatzen ahal dugu bi aldeetan. Badugu hala berean, artisautzari buruzko proiektu bat ere. Ibarreko enpresa berrietan eta eskoletan garatu nahi du arlo hori, elkarlanean. Herri Elkargoan inteligenteki jokatu behar dugu, baita Baztango herriei lanean aritu ere. Baztango Herriko Etxeak galdatu du bilera bat egitea. Lanean elkarrekin abiatu gara. Lan harreman horrek asko ekartzen ahal du ekonomian hasteko, eta zer esanik ez, gure nortasuna finkatzen lagundu ere. Jean-Baptiste Lambert aurreko auzapezak eta bere taldekoek ez zuten inolakorik inoiz planteatu izan”.

Alabaina, Nizako Herri Elkargoaren herri tipi bateko auzapez batek haien proiektua eraikitzea nola erreusitu duten erakutsi digu. Hastapenean nehor gutxi omen zen alde, orain al-diz gehiengoak alde dago. Enbeia behar da. Bakoitzak bere jarrera pixka bat moldatzen badu, besteek onar deza-

kete. Baionako Herriko Etxeak alde egin badu, zergatik ez du Miarritzek egin ahal. Eman dezagun, Bidart herri tipiak ez du onartu Herri Elkargo bakarra, alabaina, ez du Miarritzetik berezi nahi, haren beharra baitu. Denok denen beharra dugu. Jean-René Etchegarai eta bere ondokoek erraztu dute bidea. Berak egin duen lanik gabe, Elkargoa ez zen aitzina joanen. Enbeia eta ausardia behar dira.

Eskualdeen arteko oreka behar omen da.

Haatik, ez itsasaldekoek ez barnealdekoek ez diogu elkarri beldurrik ukan behar. Konparazione: laborarien mozkinen sor-markak atxiki nahi baditugu, hirikoek absolutuki lagundu behar digute. Hala berean, Miarritzek Euskal Herria marka baliatzen du turismoa ekarrazteko, baina laborarien mundua hiltzen bada, Euskal Herriak ez du berezko markarik atxikiko.

Lüküzeko Barthelemy Aguerre eta Armendaritzeko Lucien Delgue auzapezek helegite hierarkikoa ezarri dute Herri Elkargo bakarraren aurka.

Aguerre haste-hastetik nahi izan du Amikuze eta Bearnoko Salbaterra lotu Elkargo batean. Bere lekua galtzeko beldur dea? Delguek eta Aguerrek ez dute berea ez den bertze proiekturik ontsa kausitzen. Ez dute beren aulkia galdu nahi, naski. Helegite hori ezartzea kontrako politika egiteko manera bat da. Departamendua desagerturik, anitz konpetentzia galduko dira hain ziur. Herri Elkargo bakarra izanik, konpetentziak aldatuko dira. Departamenduko dirua apaldu da azken urteetan. Sistema aldatu behar da eta aldaketek zalantzak sorrarazten dituzte. Aguerrek eta Delguek horren inguruan beldurra zabaltzen dute, beren joko politikoa egi-tzen dute.

Aldiz, Miarritzeko Michel Veunac eta Angeluko Claude Olive auzapezek ez dute bide hori hartu, ezta Irulegiko Jakes Iru-me auzapezak ere.

Kontra direnek ere Herri Elkargo bakarraren desmartxan parte hartu dute. Batzuk proiektuan ari izanez, ohartu dira elkargo bakarra hoberako baizik ez dela izaten ahal. Elkar ezagutzeak hori erakutsi digu denoi. Nik Zuberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko auzapezekin elkarlanean asko ikasi dut.

Elkargo bakarraren beldur direnek Euskal Herriaren berezko nortasuna azkar-tzearen beldur dira nonbait. Euskal Herri osoaren barnean irudikatzen dute lparaldea.

Abertzaleek Euskal Herri bat nahi dutela erran dute betidanik. Azken 40 urteetan ohartu gara, Iruñea ondo-ondoan dugula. Baigorri eskualdea bestealdeari buruz gero eta gehiago emana bizi da. Nafarroaren Egunean zenbat jende biltzen den ikusi besterik ez da. Historia elkarrekin egin dezakegu berriz ere. Muga gaindituz gero harremanak errazagoak izanen dira. Baigorriko azken urteetako historia zaila izan da, baina oraingo gazteak elkarrekiko harreman moldeak aldarazten ari dira, hautetsiak horri buruz ari gara lanean. Ekonomiaren eta kultur ekimenen bidean eguneroko bizimoldea ere aldatuko da, esperantza hori daukat.

Elkargoa ukanik ere, euskara ez da ziurtatua. Zein da euskararen egoera Baigorriin?

Baigorriin beste eskualdeetatik diferentia dela, eta euskara biziago dela erraiten da, baina hemen ere euskara galtzen ari gara. Euskararen egoera ez da erraza. Gurasoengandik euskara ukan dugunok ohartzen gara gure seme-alabek ez dutela berdin ematen. Ez badute mintzatzen emeki-emeki galduko dute. Batzuek euskara gure burua bereizteko dela uste dute, eta juxtu kontrakoa da. Konparazio: kanpotik heldu den anitz jenderen nahikaria euskara ikastea da. Haienztat euskara aberastasun izugarria da.

Herriko Etxeko funtzionamenduan edota Herri Kontseiluan euskarak badu tokirik?
Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eskaini zuen kontratua onartu zuen He-

NAFARROAREN EGUNA, POLITIKOKI ERE ONARTUA

“Nafarroaren Eguna kari, orain arteko Herriko Etxeko ordezkariak harreman gutxi izan dute bestaldeko herri ordezkariak. Uroski erraiten dut, nire aita-amen denboran jende anitz joaten zen bestaldera, Baztango herriekin harreman franko ziren. Denbora pasa ahala ohartu gara harremanak galdu ditugula. Domaia da. Guk aurtengo hango hautetsiak gomiatu ditugu eta erantzunak baikorrak izan dira. Uxue Barkos berriz ere jin da. Nafarroako presidentea gurekin izatea ohorea izan da. Bi aldeetako bizilagunak harremanetan sartzeari handia da. Iruditzen zait Baigorri herriak osoki onartzen duela egun hori. Politikoki lehenago ez zen onartzen, orain bai”.

rriko Etxeak. Langileek ere onartu dute nolabait, alta, bakoitzak bere hautu egin du. Batzuk euskarazko kurtsoetan hasi dira. Eni, hasteko, nahikari horrek plazera eman dit. Idazkaritzan batek baino ez du euskara arduraz hartu. Egia erran, EEPren plangintzan ez dugu arras parte hartzen. Bilkuretan ez dugu euskaraz egiten, ezta gutxiagorik ere. Euskaraz hasita ere, frantsesera lerratzen gara. Nik Kontseiluko kideen arteko e-mailetan hitz batzuk euskaraz sartzen ditut. Uf! Ez da aisea.

Etxauzia Jauregia erosteko proiektua nola doa?

Urte bat dugu lehen xedea bururatzeko.

Jabeek urrirako arrapostua ukan nahi lukete. Baiezkoa emateko xantza ukamen dugun? Ez da errana, ezta nagusiek bertze erosleren bat ukan ez dezaketene ere. Proiektua erreusitzen badugu, horrek erakutsiko du Baigorri zerbait handiaren bila abiatu dela. Baigorriar generazio anitz joan dira Jauregi hori herriarendako bildu nahiz, baina ez dute lortu. Oraingoak erdietsiko balu abiapuntu ederra liteke. Etxauzia kudeatzen duen elkarteak euskararen aldeko proiektua bere gain hartu nahi luke. Diasporari begirako proiektua izan liteke, euskaldun ororena, geure familiaren xerka joateko, kanpoari eta barneari begiratzeko, egin ahalaz euskaraz mintzatzeko. Baigorriin, zorionez, harremanak aldatzen ari dira, euskara orain ez da politika afera. Nehor ez da euskararen kontra, ez gaude duela bi urte ginen bezala.

Beraz, Jean-Michel Coscarat auzapeza izatea hautu ona izan da.

Auzapez izendatua izan nintzelarik, batzuek “tronpatu gaituzu, abertzalea zara, baina ez duzu zure zerrenda hala presentatu”, erran zidaten. Erran nien ez dakidala zer den abertzalea izatea edo ez izatea. Gauza frankoari buruz, zerendako ez erran, hala naiz, gure kultura eta hizkuntza atxikitzeke hala naiz. Baigorriar anitzek abertzale izatea gauza itsusia bezala ikusi izan dute, orain hori aldatzen ari da nolabait. Nik Betti Bidart kontseilaria laudatzen dut, izugarria da berak egiten duen lana. Herriko Etxeko langileek eta herritarrek Bidartek egindako lana zinez preziatzen dute, herriarendako abantailak baino ez ditu ekarri. Funtsean, abertzale baten lana da. ■



ekin S. Coop.

Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)

48340 AMOREBIETA

www.ekin.es



EMAKUMEAK DIKTADURAPEAN GENERO KRIMENAK AUZITARA

Giza eskubideen urraketa latzak jazo diren gatazketan modu partikularrean sufritu dute indarkeria emakumeek. Aitzitik, oso herrialde gutxitan ikertu dira genero krimen gisa. Argentina da horietako bat; bertan aurkeztu du orain Women's Link Worldwide elkarteak diktadura frankistako krimen matxistak ikertzeko aurreneko kereila historikoa.



Itziar Ugarte Irizar

@itzugarte

ARGAZKIAK: WOMEN'S LINK WORLDWIDE



JUZGADO NACIONAL
en lo
CRIMINAL Y CORRECCIONAL
Federal n°1



Daria eta Mercedes Buxadé ahizpak, beste hiru emakumerekin batera, erizain boluntario gisa Mallorcarantz ontziratatu ziren 1936ko abuztuan, espedizio errepublikazale batean. Falangistek atxilotu eta Mallorcako kuartel nagusira eramane zituzten. Hauen aginduz, moja talde batek birjintasuna frogatzeko azterketa ginekologikoa egin zieten, eta gero falangistek modu basatian behin eta berriz bortxatu zituzten. Hurrengo egunean Son Coletes-eko hilotxan erail zituzten. Gorpuak bertako hobi komunean daudela uste dute senideek, baina oraindik ezin izan dituzte lurpetik atera.

2010etik María Servini de Cubria epailea ikertzen ari den frankismoko krimenen auzira gehitu diren kasuetako bi dira, beste lau emakumeekin batera. Women's Link Worldwide elkarteak aurkeztu ditu sei kasuak kereila batean, emakumeek jasandako indarkeria ere ikertu eta ezagutzera eman dadin.

Teresa Fernández Women's Link Worldwidede abokatuak dioenez, errepresio frankista emakume zein gizonen sufritu bazuten ere, lehenengoek indarkeria zehatza jasan zuten emakume iza-teagatik beragatik. Erregimenak bi arrazoi erabili zituen emakumeak jazarri eta torturatzeko: ideologikoki erregimenaren kontrakoak ziren gizonen senide izatea eta diktadurak emakumeei ezarritako etxeko eremuarekin apurtzea.

Kereilan azaltzen diren sei emakumetarik bosten testigantzak senideen eta Bartomeu Garí historiagilearen bitartez jaso dituzte. Gaurko egunez lau desagertuta daude eta bakarra da bizirik dagoena: Lidia Falcon O'Neill abokatu feminista. 1960 eta 1974 urte bitartean zazpi aldiz atxilotu zuten, besteak beste zenbait iritzi artikulua argitaratzeagatik. Bost atxilo-aldietan torturatu zuten: emakume izaerarekin zerikusia duten eraso zuzenak, ugalketa baldintzatzeko sabelean kolpeak eta erditzearen inguruko etengabeko irain eta aipamenak.

Diktadura frankistan hainbat genero krimen nagusitu ziren: sexu indarkeria, tortura, haurren lapurreta eta ilea larrru-arras moztuta errezino olioarekin egindako purgak. Sexu indarkeria espetxeetan eta atxiloaldietan gertatu zen nagusiki, eta haur gehienak ospitaletan lapurtu zituzten. Denera 30.960 haur, kereilan azpimarratzen denez. Emakumeak, gainera, genero diskriminazioz torturatu zituzten, irain sexista, genital-

» **Maria Servini de Cubria epailea ikertzen ari den kausara gehituriko sei emakumeetatik lau desagertuta daude eta bakarra da bizirik dagoena: Lidia Falcon O'Neill abokatu feminista; 1960 eta 1974 artean bost aldiz torturatu zuten**

» **Nazioarteko krimenak genero ikuspegiarekin aztertzea, fokua testuinguru bakoitzean emakume eta gizonen artean izandako botere harremanetan jartzean datza**

letako deskarga elektrikoak eta ugalketa oztopatzeko kolpeekin, Falcon O'Neillen testigantza erakusgarri.

Argentina bide-urratzaile

Gaurko egunez, Argentina munduko herrialde bakanetakoa da diktadurako krimenen arduradunak bere justizia sistema propioaren aurrean epaitzen. Are bakanagoak dira prozesu judizial horren barruan emakumeen aurkako krimen zehatzak salatu, ikertu eta epaitzeko urratsak.

Azken diktadura militarren aurkako lehen prozesu judiziala 80ko hamarkadan hasi zen herrialdean, baina urte gutxira bertan behera geratu zen, harik eta 2005ean epaiketegi berriz ekin zitzaieen arte. Fernándezen esanetan, "emakumeenganako errepresioaren gaian Argentina askoz aurreratuago egon da, bereziki bigarren epaiketak hasi zirenean emakume taldeak oso adi ego zirelako prozesu berrian genero ikuspegia txartatzeko".

Kasu honetan ere, andrazkoak ezarritako roletik atera eta militante politikotz izatea bizi osoko markekin zigortu zen. Delitu sexualak ez ziren kasu isolatuak izan, herrialde osoan sakabanatuta zeuden bostehundik gora atxilotze zentro klandestinoetan praktika planifikatuak izan zen, diktadura militarrek abian jarritako "garbiketaren" parte. Emakumeak sistematikoki bortxatu eta sexu indarkeriaz zigortu zituzten: biluzte behartuak, hilekoa izatean edonolako garbiketak ukatzea edo torturagatik ahulen zeudenak kateatuta eta begiak estalita bortxatzea. Haurdun zeuden emakumeak ere berdin tratatu zituzten kasurik gehienetan eta haurrak behin jaiota, amarengandik banandu eta milaka desagerrarazi zituzten.

Herrialdearen urterik ilunenak argitzeko izan diren 200 epaiketa baino gehiagotan, lortu da diktadura sasoi-ko agintari batzuk genero krimenengatik kondenatzea. Lehenengoa 2010eko ekainean izan zen, Mar de Platako agintari ohi bat –Gregorio Rafael Molina– bi emakume bortxatzeagatik zigortu zuten, beste kargu batzuen artean. Argentinako diktaduraren kontrako prozesu judizialean genero indarkeria zigortu zuen aurreneko epaia izan zen eta praktikaren sistematikotasuna frogatzeko ere balio izan zuen.

Ez da erraza, baina, emakumeei gertatukoaren salaketa muturreraino eramatea. Susana Chiarottik, Argentinako emakumeek jasandako sexu indarkeria-ri buruzko *Grietas en el silencio* (Arrakalak isilpean) liburuaren egileetako batek, esana du azken epaiketetako sententzien %5 baino ez dela genero ikuspegiak eraginda izan.

Albo kaltea baino gehiago

Nazioarteko krimenak genero ikuspegiarekin aztertzea, fokua testuinguru bakoitzean emakume eta gizonen artean izandako botere harremanetan jartzean datza, gatazkak emakume eta gizonengan izandako eragin ezberdina ikertu ahal izateko.

Genero krimenak sarri bortxaketarekin –penetrazioarekin– lotzen dira, baina indarkeria zabalagoa barnebiltzen du, esaterako: eskukatzeak, esklabotza sexuala, hainbat jazarpen bide eta sexu indarkeria –behartutako biluzteak edo mehatxu sexualak kasu–, emakumeengan orokortua baina gizonengan



» **TERESA FERNÁNDEZ
(WOMEN'S LINK WORLWIDE):**

“Oso zaila da jendeari ikusaraztea gizonek jasandako indarkeria bezain garrantzitsua dela emakumeek jasandakoa argitara ateratzea, ez baita parekoa ia inoiz. Bizi garen gizarte patriarkalean, ikuspegi maskulinoa gailentzen da arlo honetan ere”

ere erabilia, Argentinako kasuak frogatu duenez.

Generoan oinarritutako indarkeriak soka luzea du gizakiaren historian. Urte luzez krimen hauek familiaren ohorearen –ohore maskulinoaren– aurkako erasotzat jo izan dira, eremu pribatuko iraintzat. Gatazketan albo kaltetzat uler-tu dira eta horrek delitu gisa epaitzea zaildu du, kasu horiek inpunitatera eramanez.

Fiskal eta epaile askok gaian “sentsibilizazio falta” dute Fernándezen uste-tan. Sexu indarkeria biktimek sarri ez dutela garrantzirik izaten dio, ez zaie-lako galdetu ere egiten. “Oso zaila da jendeari ikusaraztea gizonek jasan-dako indarkeria bezain garrantzitsua dela emakumeek jasandakoa argitara ate-ratzea, ez baita parekoa ia inoiz. Bizi garen gizarte patriarkalean, ikuspegi maskulinoa gailentzen da arlo honetan ere”, azaldu du abokatuak.

Pauso txikitik aurrera

Erregimen autoritarioak genero ikus-pegiarekin aztertzeari geroz eta arre-ta gehiago eskaintzen zaio nazioartean Fernándezen iritziz, baina esan gabe doa, inolaz ere ez nahikoa: “Genero ju-risprudenzia pauso txikitik aurre-ra. Emakumeei eragiten dieten giza es-kubideen urraketak sakonagotik aztertu behar dira eta prozesu judizial guztietan kontuan hartu”.

Women's Link Worlwide elkarteak horretan dihardu 2001ean sortu zene-tik, besteak beste emakumeek gatazken testuinguruan sufritutako indarkeria auzitara eramaten. Duela gutxi Guate-malan egindako lana nabarmendu du Fernándezek.

Indarkeria sexuala eta bortxaketa gerrako armatzat erabili ziren he-rrialdean 80ko hamarkadako gatazka armatuan, biztanleria indigena maia ikaratu eta txikitzeko. 2013an Wo-men's Link Worlwideko abokatueta-ko batek txostena aurkeztu zuen auzite-gietan, emakumeak eta neskak Guate-malako militarren helburu izan zirela frogatzeko, erasoetatik bizirik atera-tako hamar emakumeren testigantza zuzenarekin. Aurreneko aldia izan zen herrialdean sexu indarkeria jasan zu-ten emakumeen testigantzak nazioar-teko krimen gisa aurkeztu zirena, eta ez gatazka armatuko albo kalte huts gisa.

Egiazko justizia jokoan

Aurkeztutako kereilarekin emakumeek jasandako errepresio matxista ikusa-razi nahi du Women's Link Worlwidek, orain, frankismoaren auzian harriak mugitzen hasiak egon daitezkeela ba-liatuz. Fernándezek dioenez, bada zan-tzurik frankismoaren inguruan urteetan luzatu den isiltasuna arrakalatzen ari dela pentsatzeko. Nazioartetik Espai-

niako Estatuari egindako presioak edo azkenaldian lurpetik ateratako 1936ko gerra zibileko gorpuak aipatu ditu, adi-bide gisa.

Krimen matxistak ikertzeko oztopo-rik handienaz galdeginda, Espainiako Estatuan frankismoa bera ikertzea aski oztopo dela dio. Diktadurapean jazota-ko krimenak ikertzeko egun abian den auzibide bakarra Argentinatik ari da zuzentzen Servini de Cubria epailea, eta honi ere trabak jarri dizkiotela gogo-rarazi du. Azkenetakoa, tortura eta hil-ketengatik inputatutako 18 frankistei galdeketa egiteko Serviniren eskaerari entzungor egin izana.

Oztopoak oztopo, orain aurreneko erronka kereila onartua izatea dela dio Fernándezek, eta hala izatekotan, Ruan-dan edo Jugoslavian bezala, genero kri-menen inguruan dagoen jurispruden-tzia guztia aplikatu dadila. “Bortxaketa, umiliazio publikoak... gizakiaren aurka-ko delitutzat har daitezela”, dio.

Diktadura garaiko emakumeei jazo-takoa ezagutzera emateko abagunea baliatu behar delakoan da: “Egiazko genero-justiziaren aldeko borrokan mu-gimendu soziala eragin nahi dugu, his-toria osorik ezagutarazi. Atzera begira-tu ahal izatea, gertatu zena ezagutu eta beldurrik gabe hartaz hitz egin ahal iza-tea”. Ideia argi du: ez bada emakumeek bizitakoa ere kontatzen, ez da justiziarik izango. ■

Ekitaldiak

Irakurle aurreratua

Zozketak

Denda

berriarekin zuzenean

berria berri

Orain

berria *laguna*

gehiago da

> berria.eus/berrialaguna

BERRIAlaguna bazara

Sortu kontua

eta gozatu abantailez!

berria.eus/berrialaguna

Zure ekarpenari esker,
aurrera goaz!

berria

mundua • euskarari • emana

Eneko Oroz Ormazabal

“Nazka mezuen aurrean, nire gorputza ez zentsuratzeak indartu egiten nau”

Ez dela ederra, baina bai desiragarria. Hala esan digu 31 urteko lasarte-oriarrak. Eredutik kanpo dagoelako Eneko Orozen gorputza gutxien dutenei, bere burua hipersexualizatuz eta bere gorputz biluzia aldarrikatuz erantzuten die.



TESTUA ETA ARGAZKIA:
Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Zibersexuan murgildu eta zure gorputzarekiko mespretxua aurkitu duzu.

Pornoa beti interesatu zait, baina ez nin-duen betetzen, eta post-pornora hurbildu nintzen. Porno militantearen aldeko manifestua ere atera genuen. Orduan jendea hasi zen ni pornoaren barruan irudikatzen, eta besteengandik nire gorputzarekiko arbuio eta higuin esplizitua sentitzen hasi nintzen. Helarazten zidaten desira gorputz eredu jakin batzuetara mugatzen zela eta eredu horretan ez nengoela ni: “Ez egin hori, ze nazka, ezin duzu zure gorputza publikoki sexualizatu”. Aldiz, beti izan dut nire burua hipersexualizatze joera, desiraren mapetatik ezabatu nahi izan nauten heinean horri kontra egiteko modua izan delako, baita nire gorputza erakusteko lotsarik ez dudala adieraztea ere; horregatik igotzen ditut biluzik nagoen argazkiak sarera.

Duela urte batzuk, Twitter sare sozialean Lizunak izeneko ekimena sortu zen, ahalduntzen asko lagundu duena: jendeak argazkiak bidaltzen zituen eta gure Euskal Herri puritanoan gorputzak biluztasunera ateraziren, batzuk ezarritako kanonak betetzen zituztenak eta beste batzuk ez. Denak jotzen ziren desiragarritzat, eta hori oso indartsua izan zen. Ekimenean parte hartu nuen, baina nik ez diot nire buruari argazkia ateratzen ederra delako, mapan jartzeko eta auto-errebindi-

katzeko baizik. Eta badakit jendea egon badagoela ni desiratzen nauena, desiratu nazakeena eta desiratu nauena. Ez dut nire erotikotasuna ikusten, baina nire erotikotasunean sinesten dut; autoestimubaxuaren aurkako borroka ere bada.

Erakargarria izan nahi dut, baina ez edertasunaren parametroetan, ez dut nire gorputza moldatu nahi gaur egun edertasuna ulertzen den moldeetara, baina erakargarria naizela erakutsi nahi dut. Zentzu horretan, *ugly activism* delakoa (aktibismo itsusia) asko interesatzen zait, eta nik ulertzen dudana erantzar hartzeko oso baliagarria zait: dena eder izatean zentratu beharrean, agian ez zara ederra eta ez duzu ederra izan beharrik, baina horrek ez dizu gaitasuna kentzen erotismoerako eta sexualizatzeke; elbarriak, zaharrak... ez dira desiragarritasunaren mapatik kendu behar. Aldarrikatu dezagun aniztasuna.

Edertasuna eta desiragarritasuna ezberdinak dira, hortaz.

Edertasuna eta desira ezberdintzen ditut ez edertasuna ukatzeko, baizik eta desirarako edertasuna derrigorrezko baldintza gisa ulertzearen kontra egiteko. Plazera eman eta jaso dezakegu, edertasunaren filtro horretatik pasagabe. Gainera, edertasunaren zentralitateak bizitza asko suntsitzen ditu.

Aniztasuna ederra dela eta denak garelako ederrak dio diskurtso onberak.

Alaitasunarekin alderatzen dut. Depresiorako joera dut, batzuetan triste eta haserre nago munduarekin eta adibidez nire burua festetan ateratzera derrigortu izan dut, etxean okerrago egongo nintzela banekielako, baina jendea gertatu eta nik irribarre egin arte tematuta aritzen da, nahiz eta nik irribarrerako gogorik ez izan. Nolabait, irribarre marraztera behartzen zaituzte eta behin hori lortuta, bestea lasai gelditzen da, ahazten zaitu eta parrandan jarraitzen du. Edertasuna antzera ikusten dut: ez nazazu derrigortu nire gorputza eder ikustera, ez badut eder ikusten. Horrek ez du esan nahi mundutik ezkutatu behar dudarik.

Autolaguntza gidek diotenez, gure burua maitatzea omen da oinarria.

Nire buruarekin harreman konplexua daukat. Emozionalki guztiz suntsitu nintzen eta birsortzea lortu nuen. Nire buruari galdetu nion, zer da zure zorionerako positiboa? Eta niretzat onak ziren ideia eta dinamikei lehentasuna ematen saiatu nintzen. Ordutik, nire gorputzarekin ez baina nire buruarekin banago gustura eta nire barnerako ikuspegia ona da, nahi dudana bezala birsortu naizelako. Kontua da, nik lehenesten ditudan baloreak ez direla



"Nire gorputzarekin ez daukat harreman positiboa, baina bai osasuntsua. Batzuetan gehien desiratzen duzuna da normala izatea, bakean bizitzeko, baina ez zara zu".

gizartean nagusitzen direnak, eta hor-
tik inguruarekiko talka bortitza. Egungo
jendarte ereduari, bizitza batzuk aurrera
ateratzea izugarri gogorra da.

Nazka iruzkinen aurrean, zure biluztasu- na defendatzen duzu.

Nazka adierazten didaten iruzkinen au-
rrean nire gorputza ez zentsuratzeak in-
dardu egiten nau. Badago jende bat ito egin
nahi gaituena eta plazera sentitzen duena
besteak zapalduz eta gutxietsiz, eta une
batzuetan oso gogorra den arren, ez dutela
lortuko esateko era da, eta ez da nire kon-
tutua bakarrik. Nik modu pertsonalean bizi
badut ere antzera bizi duen jende ugari-
rekin partekatzen dut borroka hau.

Normalizaziorako bide bat da, ni anor-
mal jaio nindutelako (normatibitate kanpo,
alegia), oso txikitatik baztertuta sentiarazi
ninduten (hasieran buruhandia nintzelako,
gero beste gauza batzuen-
gatik), "zu ez zara normala" da etengabe
jaso dudun mezua, eta hori oso suntsi-
korra da. Beti galtzaileen bandoan ikusi
dut nire burua. Normatibitate kanpo bizi
zarenean, batzuetan gehien desira-
tzen duzuna da normala izatea, normala
izateak bakea eta lasai egotea esan nahi
duelako, eta horretan saiatzen zara, bai-
na ez dago zure baitan eta azkenean de-
nak egiten du eztanda, lasai zaudelako,
baina ez gustura. Lasaitasun antzua da,

egokitze saiakera, baina ez zara zu.
Nire helburua da sortu naizen bezala
sozializatuz bizi ahal izatea, jazarpenik
jasan gabe. Autoestimua indartzea, eta
horretarako *ugly activism* edo biluztasu-
na bezalako tresnak erabiltzea, zoriona...
Dena bide bera da, eta hori da nire bidea.

Zure gorputzarekin harreman osasun- tsua daukazu?

Ez daukat harreman positiboa, baina
bai osasuntsua, gehiegi baloratzen ez
dudan arren, horrek ez naudelako inoiz
eraman nire gorputzaren aurkako joera
suntsikorretara.

Eta gizartean, harreman osasuntsua dau- kagu gure gorputzarekin?

Edertasunaren diskurtsoak duen na-
gusitasunaz aritu gara. Joera batzuek
derrigortzen gaituzte gure gorputza hi-
per-kontrolatzera eta konplexuz bete-
ta gaudela. Eta nik zorte handia daukat,
mutila naizelako, euren gorputza era-
kusteagatik eraso basatiak eta gupida-
gabeak jasan dituzten nesken kasuak
ezagutzen ditudalako. Jende gehiegi iku-
si dut bere gorputzagatik sufritzen, eta
hori ez da sana. Dena den, fokua ez da
jarri behar bere gorputzarekin harre-
man gatazkatsua duen jendearengan,
harreman hori bultzatzen duen eredu-
rengan baizik.

**"Desiraren mapetatik
ezabatu nahi izan
nauten heinean, horri
kontra egiteko modua
izan da nire burua
hipersexualizatzea"**

**"Ez nazazu derrigortu
nire gorputza eder
ikustera, ez badut eder
ikusten. Horrek ez du
esan nahi mundutik
ezkutatu behar dudarik"**

Zure burua hipersexualizatzea da zure arma. Oro har, gorputza sexuari eta de- sioari lotuta epaitzen al dugu?

Ezberdina da nik nire burua neure era-
bakiz hipersexualizatzea, edo besteek zu-
gan sexua baino ez ikustea, eta batzuetan
gehiegi sexualizatzen dugu, bai. Haurrari
bularra ematen ari zaion ama sexualiza-
tzera iritsi gara. Ongi ikusten dut plazera
gure bizitzaren erdigunean egotea eta oso
dibertigarria da gure bizitza sexualizatzea,
baina pertsonak pertsona bezala tratatzea
ere beharrezkoa da. Izan ere, emakumea
emakume izate hutsagatik objektibizatzea
kaltegarria da. Ezagutzen ditut mutilak ez
direnak kapaz neskak lagun gisa ulertzeko,
euren artean sexu harremanik izan gabe.

Lodifobiaz (lodienganako fobiaz) hitz egin da azkenaldian.

Lodifobiaren aurkako aktibistak sekulako
lana egiten ari dira eta bai haiei eta bai mu-
gimendu feministari eskerrak eman behar
dizkiegu, halako gaiak agendan jartzea eta
horiez gogoetatzea lortzen ari direlako.
Orain arte ikusezinak ziren jazarpenak ate-
ratzen eta borrokatzen ari dira. Garai inter-
resgarriak bizi ditugu eta aintzat hartzeko
gauza asko egiten ari dira. *Yes, we fuck* do-
kumentala adibide oso gomendagarria da,
normatibitate kanpo dauden pertsonen
sexualitatearekin duten harremanaz. Au-
rreiritzi askori aurre egiteko bikaina da. ■

Kazakhstan – Errezil



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Sagar guztiak sagar bakar batetik datozen zela sinesteak lanak ematen ditu. Milioika urteko garapenaren ondorioz, sagar batetik abiatuta, gaur egun 20.000 bat sagar barietate eta kultibar direla jotzen da. Horietatik 7.000 inguru lantzen dira. Batzuk berez sortu dira, naturak eman dituenak: mutazioen, nahasketen eta hibridazioen ondoren munduratuak. Beste asko, milaka eta milaka, geuk “egin” ditugu: egokiak iruditutako aldaerak hartu eta landuz hobetu. Gogoko bat lortutakoan hari heldu eta eutsi. Lortutako horren berdin-berdinak izango diren landareak izateko txertatu egiten dira. Txertoarekin bezala, aldaxkak edo eskejeak erabiliz ere kopia berdinak sor daitezke. Kopia horiek klonak dira. Amaren berdin-berdinak. Batzuetan gogoko landare horri eustea komeni den bezala, bestetxuetan berriak sortzea da helburua.

Loraldiaren sasoia duela baliatuz, sagarrari helduta jarraituko dut. Sagarrak Kazakhstanik omen datoz, “sagarraren herria” esan nahi duen Almatytik. Omen. Hango sagar makatza edo basaka edo txertaka batetik, *Malus sieversii*. Asia osoan, Txinako muturretik hasi eta Mediterraneoraino sagarrak jaten direnaren arrasto argiak daude, baita idatzitakoak ere. Ramses II faraoiak bere ba-



Errezil sagarra.

ratzean sagarrondoak jarrarazi zituen duela 3.200 urte inguru. Kristauen Itun Zaharrean, adibidez, duela ia 3.000 urte aipatzen dira sagarrak. Homerok ere bere *Iliada* eta *Odisea*-n sagarrak aipatzen ditu, jai olinpikoetako parte.

Mediterraneoaren alde horretatik etorriko zen gurera sagarrarekiko grina. Hemen ere, agian, izango ziren sagar basakak, baina horiek hobetu, landu eta kultibar berriak sortzeko jakintza Asia aldetik etorriko zela iruditzen zait:

grekoak, erromatarrek eta arabiarrek milaka urteko jakinduriaren laburpena ekarriko zuten. Eta guk raka, guretzat harrapatu. Eta urteen poderioz ehunka sagar berri sortzeko erabili. Egun dugun aberastasuna adibide; adibidez: Errezil sagarra.

Kazakhstan, Txina, Pertsia, Egipto, Grezia, Erroma, Errezil, milaka urteko bide bat. Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza etengabekoen bidea, jakintzaren bidea. Etorkizunaren bidea. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com





SUTONDOTIK PLAZARA

Ekin sormen-jorrari



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Baratze bat nahi dizüt egin / amets sekretuenekilan / liliak egün jauntzi eijerrenetan / mila kolorez dantzan bihotzetan” zioen Pier Paul Berzaitzek abestian. Nork dio, bada, baratzea ez denik adierazpen artistiko? Kolore, ehundura nahiz konposizio ugari topa daitezke letxuga eta alberjinia artean, tripak ez ezik irudimena elikatzeko ere balio dutenak. Irudimen hori bultzatzeko asmoz, elikadura burujabetzaren inguruko sorkuntza lehiaketa abiatu dute Bizilur Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako erakundeak eta Etxalde Nekazaritza Iraunkorraren aldeko elkarteak: Sutondotik Plazara. “Lehiaketa bidez elikadura burujabetzaren inguruan hausnarketa eta gogoeta piztea eta jendea horren inguruan pentsatzen jartzea da ideia”, azaldu digu Miren Saiz Alzugarai Bizilurreko kideak.

Argazki, ilustrazio, ikus-entzunezko edo narratiba

Lau kategoria horietako batean aurkez daitezke lanak. Ilustrazioak eskuz egina nahiz digitalak izan daitezke, eta argazkiak jatorrizkoak edo ukituren bat dutenak. Ikus-entzunezko edozein mota lana aurkez daiteke, gehienez bost minutuko iraupena duena, eta narratiba atalean, berriz, edozein generotako

lanak: kontaketak, poemak, artikulak, ipuinak... Gizarte osoari zabaldutako lehiaketa da Sutondotik Plazara. Dena den, bada antolatzaileek bereziki mugiarazi nahi duten jende bat: “Unibertsitate giroko jendea eraldaketarako agente garrantzitsu da, eta iaz haien lan dezente jaso genituela kontuan izanda, aurtan ere horrela izatea espero dugu”, dio Saiz Alzugarai.

Sariak, dirutik harago

Kategoria bakoitzeko irabazleentzat egongo diren sariak gain, bestelako hiru sari berezi ere jarri dituzte antolatzaileek: “Begirada feminista” saria, “Denok baserritarren eskubideen alde” saria eta “Publikoaren - Donostia 2016 saria” Azken honen irabazlea interneteko bozketa bidez erabakiko du publikoak, uztailaren 15etik aurrera.

Diru-saritik harago, irabazleek Elikadura burujabetzaren inguruko Bigarren Europar Forumean (Nyelleni Europe) parte hartzeko aukera izanen dute, Errumanian.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 2an ireki zuten www.bideberriak.eus/ lehiaketa webgunean, eta uztailaren 15era bitarte egonen da irekita. Beraz, hartu aitzurra, bideo kamera nahiz arkatzeta eta ekin sormenari! ■

BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea
@bizibaratzea



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Maiatzak 19: Altza (Donostia)

Tomasene Kultur Etxean, 19:00etan.
Bizarrain Euskara Elkarteak antolatuta.

Ekainak 1: Otsagabia

Esolan, ordua zehazteke.

Ekainak 7: Tolosa

Izaskun auzoan, 19:00etan.

Ekainak 10: Mutriku

Galdona auzoko kanpinean, 20:00etan.
Mutrikuko Baserri Elkarteak antolatuta.

Ekainak 11: Gellao (Eskoriatza)

Auzoko elkarteak, 11:30ean. Muruondo elkarteak antolatuta.

Ekainak 14: Barañain

Sahats euskaltegia, 19:00etan. Kultur Astearren barruan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus

943 371 545

LIBURUAK SALBATZEKO SU-ETENA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Japonia, 1534ko ekainaren 3a. Hosokawa Fujitaka -Yusai "izen artistikoa" erabiliko zuen aurrerago- jaio zen gerra zibilen garai betean, Japonia barne gaztazka amaigabeetan ahultzen ari zela. Garai onak ziren borroka lanbide zuten samuraiarentzat, eta Hosokawaren gerlari dohainak baliatu zituzten, lehenik, Ashikaga dinastiako azken shogunek eta, aurrerago, Oda Nobunaga daimyo konkistatzaileak eta haren oinordeko Toyotomi Hideyoshik. Horrez gain, te zeremonian maisua, kaligrafo aditua, historialaria, poeta, margolaria, filosofoa, arte bildumagilea... ere bazen.

XVI. mendearen amaieran, Yusai zaharra Tango probintzian zeuzkan lurretara erretiratu zen. Baina bakeak gutxi iraun zuen; 1600ean gerra berriro piztu zen. Japoniako agintari nagusi Toyotomi Hideyoshi hil zenean, inperio batu berria bitan banatuta geratu zen: Toyotomitarren aldekoak, ekialdekoak, batetik; mendebaldekoak, Tokugawa Ieyasu boteretsuaren aldekoak, bestetik, Hosokawa familia barne. Klan nagusi guztiek batzuen ala besteen aldeko hautua egin behar izan baitzuten.


Tokugawak irabazi zuen azken gudua Sekigaharan. Baina horren aurretik, Toyotomiren 15.000 soldadu Tangon sartu ziren eta Yusai bizi zen Tanabe gaztelua setiatu zuten. Samurai beteranoak 66

urte zituen, eta gotorlekua defendatzeko 500 soldadu besterik ez.

Halako nagusitasuna izanda, gaztelua hartzea lan erraza zirudien mendebaldekoentzat. Baina inperioan miresmen eta errespetu handia zioten Yusairi, baita arerioek ere. Eta ez zuten ahalegin handirik egin samurai jakintsua mendeen hartzeko; kanoiak kargatzea "ahaztuta", jaurtigairik gabeko salbak baino ez zituzten botatzen harresien kontra. Hala ere, Yusairen ohorea eta lurak ez ziren arriskuan zeuden bakarrak; Hosokawak balio ikaragarriko arte bilduma eta liburutegi zabalak zituen.


Izkribuak eta artelanak salbatzeko eskatu zion enperadoreari berari eta Go-Yōzeik (1586-1611) baietz esan zion gerlari poetaren erreguari. Hala, bi alderdiek su-etena adostu zuten literatura eta arte altxorra ebakutzeko.

Baina Japoniako 107. enperadoreak baldintza bat jarri zuen: liburutekin batera Yusai bera ere salbatu behar zen, haren bizitza bilduma bezain balioetsua zelako. Amore eman eta gaztelutik alde egiteko agindu zuzena eman zion. 1600eko urriaren 19an errenditu zen Hosokawa Fujitaka. Bizitzako azken hamarkada Kyoton emango zuen, gerra kontuak baztertuta eta hainbat alor artistiko lantzen.



Hosokawa Fujitaka (1534-1610).

Enperadorearen agindu ukaezinak samurai ohorea galarazi zion Hosokawa Fujitakari. Baina bere liburutegia salbatu ahal izan zuen eta, gainera, setioak iraun zuen hilabeteetan 15.000 etsairi gaztelu atarian eutsita, ekialdeko bandoari asko erraztu zion gerra irabaztea. ■



KAREN MURPHY / HALPERN

Ping-pong egin nahi eta erromatar villa topatu

Wiltshireko (Ingalaterra) familia batek aletegi zaharrean elektrizitatea instalatzea erabaki zuen berriki, seme-alabek ping-pong egin aitzeko argia izan zezaten. Irwindarrek kableak lur azpitik igarotzea nahi zuten, eta asmo horrekin lorategia hondeatzen hasi zirenean, elektrikariek mosaiko batekin egin zuten topo ezustean.

Ondoren, Historic England erakundeko eta Salisburyko Museoko arkeologoek baieztatu zuten mosaikoa K.o. 175 eta 220 urteen artean eraikitako erromatar villa handi baten parte dela (ezkerrean, villaren irudikapena). Aurrikuntzak garrantzi berezia dauka, mende hauetan guztietan nekazaritzak ez baitu arrastoetan kalterik eragin. ■



ARGIAren barrenak bekadunen ahotik



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Bukatzen dute praktikaldia Iker Oñatek eta Ane Urkolak, eta ekainean sartzearekin batera ekingo diote martxari bekadun berriek. Hiru bat aste izango dira ARGIA praktikak egin ahal izateko proba egin zutela hainbat gaztek, eta prest daude hurrengo hiru lauhilekoetarako bekadunak.

Iker eta Ane izan dira azkenak, eta kafe bat hartuz egonaldia kontatzeko eskatu diet. Hasieran lotsati esan didate gustura egon direla, lehen egunetik harremana gertukoa izan dela... Hori oso ondo dago, eta baloratu beharreko gauzak dira, ados, familia txikia garela eta tratuan nabari dela hori; zuk ordea, irakurle, nik bezalaxe kontakizun honetan morbo gehixeagoko zerbait bilatzen duzu: erredakzioko kideen maniak, trapu zaharrak, pasadizoak. Baina ez pentsa, ondo prestatzen dituzte ahoa gehiegi ireki ez dezaten.

“Zein gai dituzu gustuko?” izan omen zen lehen eguneko galdera. Tira, gero parean tokatutako edozein albiste aspergarri pasako badizute ere, lantaldean adeitasunez ondo dabilTZan seinale. Dena dela, esan dizuet ondo prestatzen dituztela lau hilabete horietan eta biak

alde horretatik eroso aritu direla esan didate.

Titularren gaiari heltzean hasi dira aurpegiak aldatzen. “Batzuekin gehiago findu behar izaten da”, “zorrotzagoak dira batzuk besteak baino”...; azkenean pastela atera den arte: “Landerrekin ez da inoiz asmatzen!”. Barre artean aitortu didate albistearen zuzenketarekin batera etortzen zela “oso ondo dago, baina...”, eta total, azkenean titularrean aldaketa.

Hilabete hauetan ikasi dute erredaktore bakoitzaren moduetara moldatzen, Unairen ingurugiro eta *eko* gaien lanketa ase ezina, Gorkak esaldi luzeak komarik gabe osatzeko duen gaitasuna edo Pelloren Net Hurbiletako kurtsibak (asteazkenetako lanen artean dago astekaria sarera igotzea, eta lan berezia eskatzen duten letra hoiek ondo gogoan dituzte).

Azken galdera aurkeztu dieran bezala pentsatu dut “oraingoan harrapatuko ditut ARGIAko hauek”: produktuak egiten duen ibilbidea ez diete erakutsi, seguru. Baina ezta horrela ere. Ezagutu omen dute guztia. Hurrengo bekadunekin saiatu beharko naiz aurrerago, ea txutxu-mutxuren bat kontatzen didaten. ■

“Poza da astero buzoian argi pixka bat topatzea, nahiz eta batzuetan irakurtzeko astirik izan ez (baina horrelakoetan komunean dugun Argia-saskira joaten da, eta pixkanaka errekuuperatzen ditugu)”

Uxue Alberdi

ARGIAkoa



Sarean arrantzatu gaituzte

Bai. Hanka sartu dugu. Zaztako bat bihotzean. Interneten zuzendu bai baina papek ez du erremediorik. Sormenez eta nork bere boligrafoz osatzea izan liteke modu bat.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerria Irratia:**
Astearteetan, 14:15ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:**
Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.



Eneko Sagardoy, aktorea

"IRUDITERIA BERRITZEA KOMUNAK KONPONTZEA BEZAIN BEHARREZKOA DA"

Agendak aginduta ezezekoak eman behar dituen horietakoa da Eneko Sagardoy –besteak beste– aktore durangarra. Antzerkian buru-belarri dabilen bitartean, Altzoko Handiaren azalean jartzeko lanetan ari da orain, Aitor Arregi eta Jon Garañoren zuzendaritzapean. Aitzakia bikaina 2017an estreinatuko duten filmaz eta beste makina bat gaiez galderak erantzuten jartzeko.



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zenbat aldiz galdetu dizute harrituta: 94koa zara?

Askotan, bai. Batzuetan esaten didate: "Joder, ze zortea duzun, hain gazte eta hainbeste lan", kasualitatea izango baltz bezala. Tarteka amorratzen nau, badakidalako atzean zenbat lan dagoen. Baina badakit esaten didanak harritzeko motiboak ere badituela. Ez luke hala izan behar, baina zoritxarrez, ez da ohikoa.

Ez dira asko zure gisan pantaila eta eszenatokitian ikusten ditugun aktore gazteak. Egon badaude?

Esperientzia handiko profesionalekin lan egiteko aukera izan dut: Patxo Telleria, Mikel Martinez, Ander Lipus... Askok eskertzen dut hori. Baina askotan faltan izan dut adin bereko jendearekin aritzea. Ardurak eta hasten ari denaren ilusioa konpartitzeko gogoia dut nire egoera antzekoan dagoen jendearekin. Baina ez da aktore gazteak falta direlako. Egon badaude, pila bat gainera. Ez ditugu ikusten ez dutelako lekuri haien gaitasunak erakusteko. Duela gutxi 200 gazte aurkeztu ziren Pabellon 6k deituta

Romeo eta Julieta obra egiteko castingera. Gazte formatu asko dago zain, eta batzuk kanpoan bizi dira hemen ez dutelako lan egiteko aukerarik.

Eta zu, bitartean, arnas hartu ezinda.

Egia esan bai. Oraintxe *Aundiyaz* gain, *Amodioaren ziega*, *Arren ganbara eta emeen sotoa* eta *Zergatik Jamil* antzezlanekin ari naiz. Eta bien bitartean, negurako beste film baten aurre-produkzioan eta udazkenean estreinatuko den antzerki obra bat prestatzen. Hori guztia Ikus-entzunezko Komunikazioa Gradua ikasten dudana bitartean.

Hala ere, une bakoitzean, emanaldi bakoitzaren aurretik esaten diot nire buruari: "Nik orain eta hemen egon nahi dut, ez beste inon". Ez diot etorkizunari ez iraganari asko begiratzen. Hori da erronka, unearekin konektatuta egotea. Gauza asko galtzen dituzu bestela.

Tartean bizi ere egin beharko da ba.

Ikusten ditut herri mugimenduetan buru-belarri ari diren lagunak, eta askotan esaten diet ez direla ari bizitza disfrutatzen, horretarako bakarrik bizi direla.

Haiek gauza bera esanez erantzuten didate niri. Egia esan, pena hori ere badut, ez gehiago murgildu ahal izatea herri ekimenetan, baina uste dut ni ere eragiten ari naizela beste bide batzuetatik...

Erraza jarri didazu galdera korapilatsua botatzeko. Nola uztartzen dira herri mugimenduak eta sorkuntza?

Herri ekimenetan gaur egun kultura hartzen da aisialdi jarduera huts gisa, betetzeko osagai moduan, eta modu ez arduratsuan. Deialdiak izaten dira: "Behar dugu tarte bat betetzeko... Behintzat jendea emozionatu dadila apur bat...". Baina artea ez da osagai bat. Jendeak ez du ikusten antzerkiaren atzean dagoen formakuntza lana, testuak eta paperak prestatzekoa... Eta kosta egiten zaigu gurea ere ofizioa dela edo izan daitekeela ikusaraztea.

Askotan tokatuko zitzaizun doan lan egitea ere.

Euskal Herrian auzolana eta militantzia oso errotuta dago, eta beti ikusi dut nire inguruan borondatearen kultura hori. Nik egin dut lana doan, baina

hori zer den ere zehaztu behar genuke: batzuetan ikasi dut pila bat sosik gabe egindako film laburretan, eta oso ondo kobratutako proiektuetan berriz, osasuna galdu dut. Diruarena ez da filtro solidoa. Horrek ez du esan nahi gure lanaren balioa aldarrikatu behar ez dugunik. Iturgin batek beti galdetzen du zenbat kobratuko duen, ezta? Guk aldiz konplexuak ditugu aurrekontu bat aurkezteko.

Batzuek Madril edo Parisera jotzen dute hemen lortzen ez duten baldintza eta egonkortasun ekonomikoaren bila.

Niri lasaitasuna ematen dit jakiteak lanik ez badidate ematen nire kabuz lana sortzeko gai izango naizela. Eta horretarako zein da gakoa? Formakuntza. Gustatzen zait pentsatzea horrek nola baiteko autonomia ematen didala. Erabakitzeko gaitasuna, irizpide ekonomikoaren gainetik. Madrilera joango banintz, gehiago litzake hiri handi batean bizi-itzearen esperientzia behar dudalako, lana lortzeko baino.

Madriren bai eta hemen apenas dagoena ikus-entzunezko fikzioa da. Loreak edo Amama bezalako filmek arrakasta izan dute, baina urte oso baten bi ordu eskaserako ematen dute soilik. Zer dugu ikus-entzunezko gainontzeko egunetan?

Hori bera galdetzen dut nik. Momentu honetan, zenbat lan-eskaintza ditugu euskal aktoreok? Ia ez dago ikus-entzunezko fikzioan lan egiteko aukerarik. Urtean film bikain bat, aktore bakan batzuei aldi bateko lana ematen diena, eta telebistan ia ezer ez. Telebista publiko bat izanda ere, ezin dugu fikzioan lan egin. Nola ez da jendea Madrilera joango? Nola ez dugu han eta hemen doan lan egingo film labur eta antzekotan? Gure burua entrenatuta eta lanean mantentzeko modu bakarra hori bada...

Irudikatu iturgin bat, hasi behar duena bere lagunei komuna konpontzen, edo zergatik ez, pintatzen, inori, Euskal Herri osoan, ez zaiolako hoderik izorratzen. Komunak konpondu behar diren moduan, iruditeriak ere berri egin behar dira, ureztatu behar da imajinarioa. Herri honek behar du fikzio berri bat; beharizana da. Horretarako norbaitek gidoiak idatzi behar ditu, beste batek onartu eta guk lan egin. Ez badugu horretarako aukerarik, gurpil hori geldirik dago.

Ia ordubete daramagu hizketan, eta oraindik ez dizut Aundiyaz ezer galde-tu. Zurekin beste inon topo egin duenak pentsatuko du: egia esan, Sagardoy horren handia ere ez da...

Casting arduradunak deitu ninduenean burura etorri zitzaidan lehenengo gauza hori izan zen: horretarako gorputza falta zait niri... Baina zinearen magiaz baliatu gara ikusleari *Aundiya* oparitzeko.

Neurriak neurri, kosta zaizu Altzoko Handiaren larruan jartzea?

Asko, bai. Zailena hori izan da. Oraindik lan horretan nabil. XIX. mendean erlijioak eta baserriak zuen pisua oso urrun dago nire egungo kezketatik. Etengabe hazten ari den pertsona baten minak eta beldurrak ere nire egin behar izan ditut; euskalkiarekin eta ahotsarekin borrokan ibili naiz... Oso zaila izan da, baina zailtasunarekin batera dator plazera ere. Egunero lanera erronka horrekin joateak oso bizirik sentiarazi nau.

Zenbat izango du filmak fikzio hutsetik eta zenbat biografiatik?

Egiaztatutako informazio gutxi heldu da gaur egunera. Horrek askatasuna eman die gidoilariari, eta baita aktorei ere. Gainera *Aundiyak* ez du kontatzen Joakin Eleizegi izan zenaren biografia: bi anaiaren arteko adiskidetasun istorioa da. Ezaugarri berezia da anaietako batek aldaketa bortitza jasaten duela eta horrek biei eragiten diela. Oso oinarrizko sentimenduetara jotzen duen pelikula da. Badirudi denboran atzera joanda urrunera joango garela, baina XIX. mendean eta orain kezka eta beldur antzekoak ditugu.

Nabari da lan-taldean Loreakek izandako arrakastaren oihartzuna?

Bizitzako alor guztietan bezala, behin asmatzen duzunean, hurrengo pausoa indar gehiagorekin ematen duzu. Nik ez nuen *Loreaken* parte hartu, eta ez naiz alderatzeko gai. Dena dela, absurdoa irudituko litzaidake jendeak *Loreaken* pareko zerbait espero izatea, hau oso ezberdina izango baita. Eta hori ona dela uste dut: hunkitu dezala jendea beste bide batzuk landuta. Egia da foku gehiago daudela jarrita *Loreakekin* lortutako arrakasta eta gero. Hori bala badaiteke filma toki gehiagotara eramateko, hala izan dadila.

“Herri ekimenetan gaur egun kultura hartzen da aisialdi jarduera huts gisa”

“Telebista publiko bat izanda ere, ezin dugu fikzioan lan egin. Nola ez da jendea Madrilera joango?”

“*Aundiyak* ez du kontatzen Joakin Eleizegi izan zenaren biografia: bi anaiaren arteko adiskidetasun istorioa da”

Ez zara ohituta egongo hainbeste jendearekin lanean aritzera.

Hori bada zinetik erakartzen nauen zerbait: 100 laguneko ekipo bat lanean aldi berean helburu batekin, bakoitza bere alorretik. Puntako jendea dago, gainera, sektore guztietan. Halakoetan ikusten da zer nolako profesionalak ditugun. Argi dut Euskal Herrian goi-mailako



ABARKETERUENA

TABERNA

Txanporta plaza

Tel.: 944 657 790

Iturritxo kalea, 6 48220 Abadiño



gauzak egiteko gaitasuna duten pertsonak egon badaudela. Bestetik, oso zuzendari sentiberekin egin dut topo: badakite entzuten, eta gauzak oso argi izanda ere jolasari tartea ematen. Oso babestua sentitu naiz eta hori garrantzitsua da niretzat. Lana euskara hutsean egiten dugu, eta horrek ere lagundu dit etxean bezala sentitzen.

Arrakasta handia badu, akaso alfonbra gorriren bat ere zapaldu beharko duzu... Horrek beldurtzen nau apur bat, bai. Pentsa, larritzen nintzen baten batek *Goenkalen* azaldu nintzelako ezagutzen ninduenean.... Gure lanaren parte da eta, beno, hori ere probatu beharko dugu. Baina gertatzen dena gertatzen dela, nagoen leku lasai honetan segi

nahi dut. Jarraitu lanean, ikasten... Photocalletara joan behar banaiz, joango naiz, baina jakinda alfonbra gorri horretan ez dudala aurkituko lasaitasunik. Alfonbra gorria egun batean jarri eta hurrengoan kendu egiten da. Zer gertatzen da urtearen gainontzeko egunetan handik pasatzen direnekin? ■

EMAZU
ESKUA

EUSKAL ESKOLA
PUBLIKOAREN 25. JAIA
HENDAIA

EKAINAK 5

euskaleskolapublikoarenjaia.eus



LAGUNTZAILEA

ARGIA

KULTURKRITIKA


» LIBURUA

Oso gauza serioa



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Kadrila alegera festan da

JUSEF URRUTY-BORDE

Pamiela, 1988

Bainaren belaunaldiaz ari dela, haxe dio Beñat Sarasolak: “Ez zuten inolako beldurrik edo lotsarik nahi zutena idazteko”. Orain ez bezala, kontsentsu denen aurrean *bainak* jartzeko prest zeudela, alegia. “Askatasun handia sumatzen dut testu haietan. Nahi dutenaz idazten dute, eta nahi duten tonuan”. Ubera hori hartuta esango nuke dagoela idatzita *Kadrila alegera festan da*. Delako balazta, miramendu, errespeturik gabea. Guztiz askea. Eta aipatuko dugu, bistan da, egilea. Baina, liburuan bertan ohartarazten zaigun gisan, “ez galda nor den errailea, baina erra-na har ongi gogoan”.

Errana, beraz, zertan den: “Kadrila alegerak egun hautan egin gogoeta zoin burutazio”. Hizkera samurragora ekarriz: broma handi bat. Biltzen direlako Tartas, Gazteluzar, Harizmendi eta abarrekoak, Bertrand de Etxauz apezpikua bera. Kadrila osoa, alegia –edo ia: “Aita Larramendi ez zen izan gonbidatua”–. Eta biltzen direlako orriotan ustez horiek guztiek idatzitako permisioniak, irakhurtzaileari oharrak, ipuin, poema, sermoi, berriketa eta abarrekoak. Denak ere aski falozentrikoak –ez bakarrik irudiak; eder askoak horietarik gehienak–. Batzu-batzuk puskaz androzentrikoak: “Jinkoaren semiak, jujamendu emanen du faborable senarraren alde, emaztiaren kontra”. Emakumea, alegia, ez dela Etxepareren *Emazteen fabore* hartakoa bezalakoa: “Gizona eta emaztekoa gudukan, liskarran, disputan, erreiertan bizi dira, gizona sortuz gero mundu hontan”. Baina, alea bihitik bereizita –“ene izkiributarik azal eta kanpoko den oro, bazter eginik soizu barrenagor”–, liburua da benetan barre

emangarria. Mongongo Dassantza agertzen da, esaterako, “enitxetan ekhartzen duela bere belhar eta onddo hautuenetarik”. Auskalo orriok ere izan diren horien eraginpean idatziak.

Ikusirik nor den izkribatzailea (Jusef Urruty-Borde), nor den irudigilea (Enry Kapondes Spondanus), ez da erabat okerra ondorioztatzea liburuaren egilea dela Jose Enrike Urrutia Capeau. Edo egile nagusia, liburuan zehar agertzen baita, marrazkitua behintzat, kadrila bera. Ez zehazki *Bainaren* belaunaldikoa –nahiz Pott taldearen bueltan ibili zen, adibidez, Capeau–, baina bai akaso garaia izpiritua arnasten duena. Liburua 1979an argitaratu omen zen, nahiz hemen darabilgun bertsioa den 1988koa. Idazle partikularra Capeau. Haren idazkera du seinale. “Idazteko zaletasuna hizkuntzatik etorri zait, ez neurri berean literaturatik beretik”. “Neuk ere nahi dut Borgesek bezala egin...”, ez. “Nire kasuan hizkuntza izan da. Han eta hemen ikasitako moldeak nahastea-eta. Jolas hori”. Jolasa, beraz. Broma handi bat, esana dugu. Eta broma handi guztiak bezala, oso gauza serioa. ■



Jose Enrike Urrutia
Capeau idazle eta
irudigile iurretarra

MIEL A. ELUSTONDO

» **TELEGRAMA**

Usopop festibala zazpigarren ediziora iritsiko da maiatzaren 28an: Sarako festibalak musika berriak giro berezian ekarriko ditu berriz ere, Drame, Amorante, Fùgù Mango, Evening Hymns eta Negua taldeekin **STOP Jupiter Jon, Kokoshca** eta **Antton Iturbe DJ** entzuteko aukera izango da maiatzaren 27an Donostiako Intxaurren Kultur Etxean **STOP Pedro Olearen** bi film, **Biotzez** eta **Zonbi eguna** ikusteko aukera emango du Bilboko Euskal Museoa maiatzaren 26an, Bilbo Zinemaz Blai programaren barruan **STOP**

» **MUSIKA**

Barbiere koloretsua



Montse Auzmendi

Il Barbiere di Siviglia

NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA
BILBOKO OPERAREN ABESBATZA

Rossiniren *Il Barbiere di Siviglia* opera.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: José Miguel Pérez Sierra.

Bilboko Operaren Abesbatza.

Zuzendaria: Boris Dujin. Eszena zuzendaria:

Emilio Sagi. Eszenografia: Llorenç Corbella.

Bakarlariak: Marco Caria (baritonoa),

Annalisa Stroppa (mezzoa), Michele Angelini

(tenorea), Carlos Chausson (baxua).

OLBEk antolatuta. Euskalduna Jauregia.

Maiatzaren 14a.

Amaitu da OLBERen 64. opera denboraldia, modu alai eta baikorrez amaitu ere. Horretarako titulu ezin aproposagoa da Rossiniren *Il Barbiere di Siviglia*. Oso erraza entzuteko, aria ezagunak dituen, amaiera pozgarria duena... Bai, hainbeste drama, heriotza eta iluntasunen ondoren, ondo etorri zaigu holako txute distiratsua. Kasu honetan, gainera, ez da obra bera bakarrik argitsua izan, gainontzeko guztia baizik. Eszenografia, Llorenç Corbellak sinatua, ikuskizunaren alderdi onenetako bat izan zen. Sinplea, baina ez xumea; sofistikatua, kargatua izan gabe. Eta esanguratsua: txuri-beltzez hasiera batean, eta mila koloretakoa bukaera alai horretarako. Eduardo Bravoren argitze ederrak ere eragin zuzena izan zuen efektu dotore horretan.

na duena, malgua eta arreta handiz gauzatzaren zituena zuzendariaren keinuak. José Miguel Pérez Sierra, zuzendaria, puntu-puntu aritu zen, bide batez.

Bakarlariak buruz ere, gauza onak esan daitezke. Distiratsua, batzuk beste batzuk baino gehiago. Marco Caria baritonoak Figaro eraginkorra egin zuen. Aise interpretatu zituen koloratura zailak, eta taxuz mugitu zen taula gainean. Michele Angelini tenoreak berriz, Almaviva konde arina interpretatu zuen. Ahots kolore polita du eta abila da koloraturak egiten ere, baina bere pertsonaia lau samarra geratu zitzaion, nahiz eta, esan bezala, kalitate bokal nahikoa erakutsi. Hala ere, nire ikuspuntutik, bi izar izan genituen saio honetan. Alde batetik ahots biribila duen Annalisa Stroppa mezzoa, primerako aktore bezala mugitu zena, bikain egin zituen bere aria guztiak. Ederra entzun genuen, adibidez, *Una voce poco fa* famatua. Orokorrean maila altua mantendu zuen saio osoan zehar. Eta bigarren izarra Carlos Chausson baxua izan zen: sasoi onean dago ahotsez eta modu konbentzigarritz egin zuen Bartoloren rola. *A un dottor de la mia sorte* aria modu bikainez abestu zuen, besteak beste. Aipamen bat egin nahi nuke Susana Córdón mezzorearen interpretazioari buruz. Txikia zen bere papera, baina ederki abestu zuen eta komizidade izugarria erakutsi zuen. Bestalde, Emilio Sagiren eszena zuzendaritza bikaina izan zen. Amaiera ederra, bada. ■



Matilda eta Willy Wonka, liburuetatik Hondarribiko alde zaharrera

ROALD DAHL JAIO ZELA 100 URTE

Idazleari buruzko erakusketa.
Hondarribiko Kultur eta Turismo Gunean.
Maiatzaren 30 arte zabalik.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Txokolate fabrika misteriotsu eta surrealista, pentsamenduarekin gauzak mugitzeko gai den neskato buruargia, amesgaiztoak amets ederrengatik aldatzen dituen erraldoia, munduko ume guztiak akabatzea helburu duten sorginak... Irudimenez, umore beltzez eta txikienenganako konplizitatez betetako istorioak idatzi zituen Roald Dahl idazle britainiarra, eta haur asko eta asko irakurketara zaletzea lortu zuen, *Charlie eta txokolate fabrika*, *Matilda*, *Sorginak*, *Super Azeri* edota *Erraldoi miragarria* bezalako liburuei esker.

Jaio zela 100 urte bete direnean, haren obra landu dute Hondarribiko Talaiak ikastetxean, eta erakusketa ere paratu dute alde zaharrean. Liburuaren Eguna abiapuntu hartuta, urtero gairen bat jorratzen dute ikastetxean, eta autore ingelesaren urteurrena primerako aitzakia izan da ikasturte honetarako. Batez ere 8-12 urte arteko ikasleek hartu dute parte. Gela bakoitzak idazlearen liburu bana irakurri eta landu du, eta proposamena ere egin zaie ikasleei: Roald Dahlen pertsonaietako batean oi-



narrituta istorio berri bat sortzea, gurasoen laguntzaz. "Idazlan bikainak jaso ditugu", dio Carmen Gutierrezek. Talaiako irakaslea eta ekimenaren bultzatzaileetako bat da bera. Autoreak abildadea zuen umeen lekuan jarri eta istorioak euren ikuspegitik kontatzeko; horregatik, liburuetan erabat murgildu dira Talaiako ikasleak. "Roald Dahlek duen umore ukitua da gehien erakarri dituen, baita helduez egin ohi duen erretratu ere, ez direlako ohiko heldu zentzudun eta orojakileak, alderantziz baizik, eta hori gustuko dute umeei". Helburua behintzat lortu du proiektuak, irakurzaletasuna sustatzeko akuilu izan delako. Herriko liburutegian ere nabaritu da, autorearen obren eskaera igo egin baita.

Eskolatik erakusketara

Udal liburutegiarekin elkarlanean, urrats bat gehiago eman eta erakusketa antolatu dute Hondarribiko Kultur eta Turismo Gunean. Kapelak eta moztarrok; txokolate fabrika bat eta Matildaren mundua, plastilina irudikatuak; margo-tutako kartelak eta Roald Dahli buruzko



panel informatiboak; idazlea jesartzen zen besaulkiaren kopia bat, gerturatzen direnek bertan eseri eta bisita-liburuan iruzkinak utz ditzaten; Dahlen biografia, olerkiak, ipuinak... narratzen doan ikus-entzunezkoa, paretan proiektatua; Willy Wonka eta Matilda, tamaina handian; trapuzko panpinak, dortokak, karamelu potoa... eta, jakina, liburuak. Hori guztia du erakusketak. Baina "erakusketako altxor handiena" zein den argi du irakasleak: Talaiako haurrek egin dituzten idazlanetako batzuk biltzen dituen liburu. Istorio horietako birekin, gainera, beste liburuxka bat atera eta ikasleei emango diete ikasturte amaieran.

Haurrentzako bisita gidatuak egiten ari dira erakusketan, eta Talaiako ikasleak bakarrik kontuan hartuz, 1.000 gazte gutxienez gerturatu dira dagoeneko, Dahlen unibertso magikoa hurbiletik ezagutzera. Hark zioen moduan, begi distiratsuz egin behar zaio so inguratzen gaituen munduari, "sekreturik handienak lekuri susmaezinenetan ezkutatuta daudelako beti. Magian sinesten ez dutenek ez dituzte inoiz aurkituko". ■

Hitz gezidunak

[illegible]

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako
zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko
koadro bakoitzean errepikatu gabe.

5		1		8		9		
6			1	9			8	
8			2					
3	7				9			
	2						3	
			4				6	8
					4			3
	5			6	1			4
		4		5		2		6

5x5


Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Igaro den denboran.
2. Moztu.
3. ... eta arte, bitartean.
4. Emakumezko izena.
5. Zilarraren koloreko metal.

Soluzioak

[illegible]

Santiago López Petit. Barne-minetan



Bartzelona, 1950. Orain hogei urte hasi zen gero neke kronikoa izango zena sufritzen. Edo hasi zen López Petit filosofoak berak “gauaren zeharkaldia” deitu duena. Suntsiketa prozesu fisiko eta mental hori azaltzen du *Hijos de la noche* (Gauaren seme-alabak) liburuan. Sufritzaile soil izan beharrean, eztabaidan parte hartzeko borondatearekin.

“Osasunak eskatzen du gaixotasuna onartzea”



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga

ARGAZKIAK: NÚRIA JUAN SERRAHIMA

Erabakia

“Desberdindu behar dira hauskortasuna eta ahultasuna. Ahultasuna biktimaren ideiarekin lotuta doa, gaixo gaixoa. Nik horri bira eman nahi izan diot, gaixo egotearen urguilua adierazi nahi izan dut. Antonin Artaudek zioen gaixotasun bat sendatzea krimena dela, gaixotasunak ematen baitizu aukera mundua bestela ikusteko, ilargiaren beste aldea. Kasu, ez dut aukeratzeko gaixorik egotea, gaixo orok sendatu nahi du, badakit hori. Baina gaixotasunak, gaixotasun batzuek behintzat, zarenaren egia ematen dizute, eta munduarena. Nekea zer da? Zure bizitzaren etena, eta etenak uzten dizu ikusten etenik gabeko aktibitate batek ezkutatzeko dizuna. Gaueko zeharkaldi honen momenturen batean norberak erabakitzen du zer izan nahi duen, bere bizitza izatea zer nahi duen”.

Zure kontakizuna erotik eta intimoa, baina badu, halaber, dimentsio politiko bat. Momentu hauetan egin dezakedan gauzarik politikoena, segur aski, izango da azaltzea zergatik gaua dagoen nigan eta irensten nauen modu nekaezinean. Hau da, gaixotasuna azaltzea ekintza politiko baten gisara. Partekatzea litzateke nire ondoeza politizatzea. Gaixotasuna arma bihurtzea.

Norbera diagnostikatuz garai bat diagnostikatzea, alegia.

Erabat pertsonala da liburua, nire suntsiketa prozesu fisiko eta mentala agertzen da bertan, baina azkenerako ahots kolektibo bilakatzen da. Apustua hori zen: gertatzen zaidanaren hondoraino banoa, nolabait ondoez sozial batekin konektatzen dut, eta existentziaren politizazioak dakar gaixotasuna arma bilakatzea. Diagnosi pertsonal bat egiten dut, baina aldi berean garai baten diagnosia da. Ahots pertsonala desokupatu egiten da, eta ahots kolektibo bilakatzen.

Diagnosi esan duzu, medikuntzako terminoa. Zurea, aldiz, filosofiatik gerturatzea izan da.

Gaur egunean zutik iraun nahi duen jendeak, belaunikatu gabe, eguneroko umiliazioa jasan nahi ez duenak, bizitzarekin arazoak ditu, arazo politikoak. Bizitzarekiko arazo horien aurrean azalean geratzen da psikologia, bizitza pribatu baten arazoak deskribatzearekin geratzen da. Filosofia saiatuko litzateke sartzen gehiago bizitza ororen hondo ilunean: zer dakigu bizitza batez, zer dakigu geure bizitzaz, nola zeharkatzen dugu inpotentzia politiko, nola egiten da jasangarri bizitza politiko bat. Eta hori guztiori gaixotu gabe.

Zu gaixotu egin zinen: neke kronikoa.

Tira, esplikatu ezin den guztia kabitzen den sindrome baten barruan sailkatu naute. Sailkatua izateak, gaixotasunari izena jartzeak, agian jasaten dudako suntsitze hau geldituko zuela uste nuen. Baina nekea ez da edukitzen den gaixotasun bat. Izateko modu bat da.



Psikiatrak argi dauka: zure nortasunaren alde intelektuala asko garatu duzu, eta gutxi alde emozionala.

Medikuntzak modu garbian banantzen ditu osasuna eta gaixotasuna, eta hori problematikoa da. Are orain, agertu denean gaixotasun multzo bat, normaltasunaren gaixotasunak deitzen ditudanak, normaltasunera ezin egokitzen sortzen direnak. Medikuek diagnostikatzen ez dakiten gaixotasunak dira, bestalde, eta era berean oso pertsonalatuak, elkarren diferenteak. Etengabe mobilizatuta zaudenean bizitza deitzen dugun makina honen barruan, puskatu egiten zara. Eta zer gertatzen da bizitza bat puskatzen denean, nola ateratzen dira indarrak haustura horretatik?

Galdera ona da.

Onartu behar dugu, lehenik, anomalia garena. Eta horrek eramango gaitu minaren indarrera, edo, hobeto, minezko indarrera. Anomalia da bizi nahi izatea eta ezin bizi izatea. Bizitzarekin arazoak badituzu ez zarelako erabat egokitzen normaltasunera, anomalia bat zarelako –eta neurri batean denok gara dagoene-

ko anomalia–, minezko indar batek gurtzatzen zaitu. Kontua da nola hartzen duzun minezko indar hori eta nola zuzentzen duzun. Dimentsio kolektiboak laguntzen du bizi-nahi hori artikulatzen.

Aipatu dituzu normaltasunaren gaixotasunak. Jendarte bakoitzak baditu bereak.

Ondoez soziala da jendarte hau salatzaren duena zapaltzailetzat, gordintzat, injustutzat. Hutsunearen gaixotasunak ezagutzen ditugu gaur, antsietatea, anorexia; sistema immunologikoaren gaixotasunak: neke kronikoa, sentsibilizazio kimiko multiplea, fibromialgia. Nola deitu gero normaltasunaren gaixotasunari? Izen egokiena izango da, segur aski, nekea.

Normaltasuna, beraz. Gaixotasunak ateratzen zaitu normaltasunetik.

Gaixotasuna, erromantikoentzat, bereizketa zeinu bat zen. Garai globalean, normaltasuna bera askoz ere interesgarriago bilakatu da salbuespena baino. Esan dezagun nekeak galarazten duela poztasuna, nahiz eta ateratzen zaituen erdipurdikotasunetik.


“Medikuntzak modu garbian banantzen ditu osasuna eta gaixotasuna, eta hori problematikoa da”.

Gaixotasuna bera atera nahi ote dugun gure jendartetik.

Gaixotasuna giza izaeran txertatuta dago, erabat propioa da. Eta era berean beti izan da dekadentziaren sinonimo, ezintasuna ekarri du berarekin. Osasunak, aldiz, egiazko osasunak, eskatzen du gaixotasuna onartzea, menperatzea, eta bizitzeko estimulu bilakatzea.

Eta, gaixotasunetik, zein da heriotzarekiko harremana?

Neke kronikoaren kasuan, esango nuke funtsezkoa: heriotza barneratzen bada akaso bizi daiteke. Biraketa egin nuen nik: heriotza jarri behar dut nire barruan bizitza hau jasanezina delako. Heriotzarekiko harreman modu batek galarazten dizu heriotzarekiko beldurra. Eta horrek konektatzen du bizi nahi izatearekin. Nola alda dezakezu zure bizitza ez baduzu gorrotatzen? Bizitzaren baieztapen puru bat ezin da egin, bizitza iluna baita. Baina bizitzaren grazia hori da, erabat argia balitz galduko luke interesa. ■



ARGIAren erredakzioak “independentzia” idazten ikasi du aste bakarrean

Joan den asteko azalean “independentzia” hitza gaizki idatzi ondoren, ARGIAren erredakzioak astebete eman du, metodo aurreratuena erabiliz, berriro idazten ikasten. Josep Cagamiandurries pedagogo kataluniar prestigiotsuaren laguntza izan dute horretarako: ANCKo kidea ere bada irakaslea, eta Dumientzako gramatika independentista liburuarekin egin zen ezagun. Funtsean, prozesu kataluniarrek beste esparru ba-

tzuetan ere aplikatu duen bi oinarriko teknika irakatsi dizkio ARGIAri: borondate ona, batetik; eta errepikapena, bestetik. Batez ere azken hori: gauza berdina behin eta berriz errepikatu behar da kaskoan ondo sartu arte. “Ikusirik zein azkar ikasi duzuen hitza nola idazten den, uste dut laster hasiko zaretela Vicent Partal bezala behin eta berriro erabiltzen. Ikusiko duzue, titularretan oso ondo geratzen da”.

SAREAN ARRANTZATUA

Lortu nazi karneta marrazten jakin gabe



Europar Batasunaren errota



Mozal Legea Katalunian aplikatuko dute aurrerantzean, “euskaldunek eskotean ordainduta errazago dute eta”

Espainiako Estatuko indar maltzur-maltzur eta gaiztoek taktika aldatu eta Kataluniako kazetari bati ipini diote isuna Mozal Legeren aitzakian. Barne Ministerioko iturri fidagarriek [eztut hotsa] Beranduegiri jakinarazi diotenez, “Euskal Herrian ez du ondo funtzionatu isunaren kontu horrek; eskotean ordain-

tzen dute, edo bestela bilbotar batek pagatzen du guztia, eta horrela ez du hainbesteko minik ematen, kauenla...”. Ondorioz, Merce Alcócer kazetari katalana zigortzea deliberatu dute. “Ikusiko du isuna ordaintzeko elkartasun eske hasi eta kilker hotsak besterik aditzen ez dituenear, kar, kar...”, gaineratu du.



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTZALETASUNA
| EKONOMIA SOZIALA
ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.




Ekonomia Sozialean oinarritutako enpresa gara. Langileok gara jabeak eta egitura horizontala eta parte hartzailea dugu. Eragiten jarraitzeko, komunitatea indartu eta kolektiboki jardun nahi dugu, ARGIA osatzen dugun guztion elkartetik eta inplikaziotik abiatuta.

MAIATZEKO ZOZKETAK



LANKI ikertegiko materiala
(5 saski)

Lanki
lanki.coop



Ondarroako Arrigorri ostatuan
egonaldia 2 pertsonarentzat

Arrigorri
arrigorri.eus



Dabilen harriari goroldiorik ez
(5 liburu)

Joxemi Zumalabe
joxemizumalabe.eus



REAS (Ekonomia alternatiboa eta
solidarioaren sarea) (2 saski)

REAS
www.economiasolidaria.org

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

Perlak

“itzaletatik”

diskoaren AURKEZPENA

le BUKÖWSKI

maiatzak 21, larunbata (DONOSTIA)

KATATU ostatua

ekainak 5, igandea (BERA)

KAFE ANTZOKIA

ekainak 23, osteguna (BILBO)

MODELO aretoa

uztailak 1, ostirala (ZARAUTZ)

BELEZA MALANDRA

ateneo kulturala

uztailak 22, ostirala (BERMEO)

perlak.bandcamp.com
perlakband@gmail.com

656732585
628739481